

# QEU

2,40 €

2009ko urtarrila 191

## IRUÑA - VELEIA




ensueños loinaz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38

%30eko

beherapenak



DIMAFLE(X)



dalvez

maketazioa | inprimatze-lanak | diseinua



diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz

tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69

info@dalvez.com

www.dalvez.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu aldizkaria.  
urteko kuota: 20.- euro.

# sumarioa 191 editoriala

## geugaia

iruña-veleia. bertsio ofiziala ..... 7-12

## geupertsonaia

eliseo gil, iruña-veleia zuzendari ohia ..... 13-19

## iritziak iruña-veleiaz

• arkeologia & zientziaren aldeko adierazpena ... 22

• patxi alaña ..... 24

• arantxa zabala ..... 26

• jose ignacio vegas aranburu ..... 27

• ramon loza ..... 28

• xabi otsoa de alda ..... 30

• koenraad van den driessche-ren bloga ..... 32

• davide di paola ..... 34

• kaletik ..... 35

• erlantz urtasun ..... 35

## beste:

lazarragaren jardunaldiak ..... 4-5

gaztezulo ..... 20

musika zutabea ..... 36

araba bixotzian ..... 36

ez adiorik, mikel laboa! ..... 38

Iruña-Veleiaren inguruan gauzak ez daude batere garbi eta, horrenbestez, GEU aldizkariak gaiaren inguruko monografikoa jorratzeko beharra ikusi du. Honakoa, beraz, ahal den neurrian auzia zerbait argitzeko saialdia da, eta era berean korrante nagusiaren aurrean bestelako ikuspegiak plazaratzeko, zenbait zalantza eta irizpide berezkoak mahaiainaratu, gauzak batere ongi egin eta bideratu ez direlakoan. Ildo horretatik, galderak eta zalantzak asko dira...


- Aurkikuntzen inguruko "behin betiko" emaitzatik at, AFAk harturiko Eliseo Gil bai batzordetik bai aztarnategiaren zuzendaritzatik botatzeko erabakia eta erabilitako modua oso salagarriak dira: defentsarako aukerarik gabeko epaidun epaiketa izan da; inolako errespeturik gabekoa; pertsona multzo bat frogarik gabe porrot profesional eta pertsonalera eraman duen erabaki bidegabea; erabilitako era inkisitoriala...
- Egiatzotasunerako eta filologikoki eta epigrafikoki aurkikuntzak koherentziaz azaltzeko zailtasunak daudela onartuta ere, ez da ulergarria gaia bideratzeko hartutako bidea.
- Iruzurraren aukeraren aurrean ere, bertsio ofizialak ez du batere garbi bere mezua utzi, Eliseo Gil bera iruzurle bailitzan hartua izan da-eta. AFA eta Batzordea arduratu behar dira orain hori garbitzeaz eta argitzeaz. Iruzurra bada, nork eta zergatik egin du?
- Zertarako da batzorde bat, irizpide eta ondorio desberdinak aztertu, alderatzeko, eztabaidan jarduteko eta ondorio komunak ateratzeko ez bada? Orduan zergatik bota bertako kide bat? Zertan oinarrituta?
- Batzorde ofizialaren txostenetako ondorioak bestelako adituek ere kontrastatuak izan al dira, benetan zientziari eusteko? Ondorio horietara iristeko egin beharreko frogak egin al dituzte? Aurkikuntza guztien-guztien faltsutasuna frogatu al dute benetan? Eta guztien artean, bakarra edota gutxi batzuk egiazkoak izan daitezkeen aukera frogatu al dute? Txostenak ez dira ofizialki publiko egin, zergatik?
- Bertsio ofizialaren orain arteko adibideak mediatikoei ez al dira izan? Itsasgarria, Descartes...
- Eliseo Gilek gauzak ongi egin ez izana leporatu zaio. Eliseo Gilek berak zenbait akats onartuta ere, hori ere frogatu beharko dute (izan ere, zenbait adituk uste baitute bere lana ondo egin duela). Den-dena hain txarto egin al da? Orduan gauzak hain txarto egin baditu nolatan egon da aztarnategiaren zuzendari 14 urtez? Eta AFA eta Batzordea ere, ongi ari al dira?
- Zergatik ez dira 2008ko urtarrilean *Adituen Batzordea* eratu zenetik Eliseo Gilek eskaturiko analitika eta froga berriak egin?
- Eliseo Gilek benetan aukera eduki al du bere lana hobeto bideratzeko?
- Gertatutakoak kontrastatu barik, bertsio ofiziala bere egin duen korrante mediatiko bakarra ez al da hedatu, bestelako ikuspegiak zeharo itoz?
- Handiak txikia jaten duten horietakoa ematen du honek. Ez al da historia horrela idazten?
- Oraindik bai faltsutasunaz bai egiazkotasunaz behin betiko frogak ez al dira falta?
- Txosten ofiziala ezkutuko da eta zentzu horretan, ezin daiteke zientifikoa izan, ezin daitekeelako kontrastatu. Ez al da funtsezkoa publikoki aurkeztu eta eztabaidatu eta zalantzan jartzeko ere aukera ematea?
- Ez al du gizarteak azalpen garbia merezi?
- Beharrezkoa al zen honetara iristea, aurkikuntzen ondorioak direnak/liratekeenak izanda ere?
- Zer dago gai honen guztiaren atzetik?... Beltza Iruña-Veleian... Ilun... Iluna-Veleia... ILLV-NA, XIX. mendean Trespontan (Iruña) topatutako uestezko antzinako euskal estela, gaur egun desagertua...

estitxu breñas glz de zarate,  
geu aldizkariaren zuzendaria

**GEU**

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azaleko muntaia: geu | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz.


de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: jose ignacio vegas aranburu, ramon loza, xabi otsoa de alda, davide di paola, patxi alaña, arantxa zabala, erlantz urtasun, kike fdz de pinedo, uhina eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetzat saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako erantzukizunik.




www.geugasteiz.com

# lazarraga. arabar poeta (1547-1605). jardunaldiak

abenduak 9-10-11. artium. geu & afa-k antolatua





# Lazarraga

ARABAR POETA  
(1547-1605)



3



4



6



7



10



11



14



15

## 08/abenduak 5. prentsaurrekoa

estitxu breñas glz de zarate, geu aldizkariaren zuzendaria eta lorena lpz de lacalle, euskara, kultura eta kirol foru diputatua

## 08/abenduak 9. lazarraga eta euskara

jardunaldien aurkezpena: nagore amondarain jardunaldien teknikaria, lorena lpz de lacalle eta gidor bilbao hizlaria

gidor bilbao: lazarragaren ediziorako bidea

koldo zuazo: lazarraga eta arabako euskara

nagore amondarain aurkezpen lanetan

olatz zugasti eta gerardo markuleta&gidor bilbaoren lazarragaren olerkietan oinarritutako poema irakurketa, harparen laguntzaz. zugastik, aldi berean, mikel laboari bere omenalditxoa egin zion goizuetan kantua harpaz joz

## 08/abenduak 10. lazarraga eta gizartea

joseba intxausti: elite euskaltzaleak lazarragaren bezperan; eta elizakoak zer?

kike fdz de pinedo & xabi otsoa de alda: larreako sorginak eta arabar euskal elebakarrak lazarragaren garaian

pruden gartzia: zazpi gauza jakin beharrekoak lazarragari buruz

intonatione kuartettoa: kontzertu klasikoa, XVI eta XVII. mendeetako musika emanaldia, orduko euskal musikaren lagin bat ere eskainiz

## 08/abenduak 11. lazarraga eta literatura

bernardo atxaga aurkezle eta moderatzaile

julen arriolabengoa: euskal kantu zaharrak eta beste ibarguen-cachopin kronikan

iñaki aldekoa: ernazimentua lazarragaren literaturan

ortzai antzerki laborategiak 'maitasunaren saltsan', lazarragaren artzain nobelaren moldaketa aurkeztu zuen

bertso trama, lazarraga asmatuz: josu goikoetxea tramalari, amets arzallus, maialen lujanbio, igor elortza eta unai iturriaga



eguneko  
menua



**GORETTI**  
ILEAPAINDEGIA  
Hedegile kalea (Korre), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**



**ZURE  
AUTOESKOLA!**  
Valladolid kalea, 16  
Tfnoa. 945 28 28 39  
01002 GASTEIZ

**dalvez**




info@dalvez.com

**azkarprint**  
inprenta / inprimategia



Landazuri, 7 - 945 23 30 01  
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

**DIBUtec**

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

**Eramun**  
Argazki - Estudio



Heraclio Fournier, 23  
(laborategia) 945 13 71 02  
Askatasun kalea, 5  
945 26 19 91

**LA RIOJANA**  
on egin!!! jatetxea

bokatak,  
pintxoak, kazuelatxoak  
Aiztogile kalea (Kutxi), 33  
tfnoa. 945 25 02 39

**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza GASTEIZ

**El Clarete**  
jatetxea



unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18  
gasteiz 945 263 874



**KIDE**  
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



## IRUÑA-VELEIA: BERTSIO OFIZIALA

# BATZORDE ZIENTIFIKOAREN ONDORIOAK:

# “FALTSUAK DIRA”

Iruña-Veleiako (Araba) aztarnategiko aurkikuntzak faltsuak direla ondorioztatu du Arabako Aldundiak osatutako Ikerketarako Batzorde zientifikoak. Zalantzarako tarterik ez dute utzi adituek. Azaroaren 19an Arabako Biltzar Nagusietan aurkeztutako txostenaren ondorioak, erabatekoak dira: euskarazko grafitoak, kristautasunaren irudikapenak eta hieroglifikoak faltsuak dira, eta, are gehiago, norbaitek nahita faltsutu ditu.

## **t. edurne begiristain**

### **a. edorta sanz & artxibo**

Iruña-Veleiako (Araba) aztarnategiko aurkikuntzak faltsuak direla ondorioztatu du Arabako Aldundiak osatutako Ikerketarako Batzorde zientifikoak. Zalantzarako tarterik ez dute utzi adituek. Azaroaren 19an Arabako Biltzar Nagusietan aurkeztutako txostenaren ondorioak, erabatekoak dira: euskarazko grafitoak, kristautasunaren irudikapenak eta hieroglifikoak faltsuak dira, eta, are gehiago, norbaitek nahita faltsutu ditu.

2005eko irailean gizaki eta animalien hezurdurak aurkitu zituzten Iruña-Okan (Araba), erromatarren garaiko Veleia hirian egiten ari ziren indusketa lanetan. Urte bereko martxoan Veleiako herria euskal protohistoriako handiena izan zela jakinarazi zuen aztarnategiko ikertzaile taldeak. 2006ko ekainean, Iruña-Veleiako herri erromatarrean inoizko euskarazko idazki zaharrenak (III. eta VI. mende artekoak) eta historia osoko lehen kalbarioa topatu zituztela ziurtatu zuten hainbat arkeologok. Lehenik, III. mendeko kalbario bat eta garai bertsuko multzo epigrafikoa aurkeztu zituzten; «Ponpeian, Erroman eta Vindolandan agertutako enparekoak» zen multzo epigrafikoa, Eliseo Gil arkeologo eta Veleiako indusketen orduko zuzendariaren arabera. Egun batzuk geroago, euskaraz idatzitako hitzik zaharrenek aurkitu zituztela jakinarazi zuten (III. eta VI. mendeen artekoak), ostraka batzuetan grabatuak. Eguneroko bizitzako kontuekin lotuak ziren ostraketako hitz batzuk, hala nola *zuri urdin gori, urdin isar eta edan ian lo*; erlijio kutsukoak besteak: *geure ata zutan* eta *iesus joshe ata ta miriam ama*. Iruña-Veleiako aztarnategiko ikertzaileen batzordeko kide guztiek garrantzi handia eman zioten aurkikuntzari; baita Henrike Knörr eta Joaquín Gorrotxategik ere, batzorde horretako hizkuntzalari gisa.

Baina, hilabete batzuen buruan, Veleiako idazkunen benetakotasuna zalantzan jarri zuen Joaquín Gorrotxategik, eta Joseba Lakarra EHUKo Filologia katedradu-

nak ere jarrera bera erakutsi zuen. Aldi berean, Veleiako idazkun gehienak III. mendetik VI. mende artekoak zirela baieztatu zuen ikertzaileen batzordeak, egindako proba teknikoan emaitzetan oinarrituta: C14rena eta termolumineszentiarena. Gorrotxategik ez zuen parte hartu batzordeak albistea emateko egin zuen agerraldian.

2008ko urtarrilean, Iruña-Veleiako aztarnategiko lanen aldeko apustu sendoa egiteko eskatu zion Eliseo Gilek Arabako Foru Aldundiari. Plan bat onartzea eta fundazioa sortzea proposatu zuen. Arabako Foru Aldundiak ikerketei bultzada eman eta batzorde zientifiko berria osatzea erabaki zuen, eta orduan sortu zen Iruña-Veleiako Aztarnategiko Azterlan eta Ikerketarako Batzorde Zientifiko-Aholkularia. Arabako Foru Aldundiak zehaztu zuenaren arabera, Batzordearen eginbeharra zen indusketan agertutako ostraka eta idazkunen benetakotasunari buruzko txosten sendoa egitea. Horretarako, hainbat adituri egin zitzairen batzordean parte hartzeko gonbita. Bertan egoteko deia jaso zuten, besteak beste, Joaquín Gorrotxategi, Joseba Lakarra eta Henrike Knörr hizkuntzalari eta filologok, Santos Yanguas historialariak, Agustín Azkarate eta Julio Nuñez arkeologok, Fernando Legarda eta Juan Manuel Madariaga kimikariek, Pilar Cipres epigrafistak, Andres Valdeon arkeologoak eta Felix Lopez Museoen zerbitzuko buruak. Batzordearen zeregina aztarnak berraztertu eta haiei buruzko iritzia ematea izan da.

2008ko urrian, Ikerlarien Batzordeak bildutako frogak eta txostenak aztertu ostean, Iruña-Veleiako idazkunen inguruko zalantzak berretsi zituzten Joaquín Gorrotxategik eta Joseba Lakarrak, Euskaltzaindiak antolatuta euskara, katalana, okzitaniera eta aragoieraren egoera aztertzeko Iruñean egindako jardunaldietan. «Beldur naiz hau guztia ez ote den iruzur lotsagarri eta penagarria izango», adierazi zuen zehazki Gorrotxategik. Filologia historikoaren ikuspegitik, ezinezkoa da, Gorrotxategiren eta Lakarraren ustez, Iruña-Veleiako ostraketako hitzak III-VI. mende artekoak izatea.

Ikertzaile taldeak oso larritzat jo zituen Gorrotxategiren adierazpenak.

Hilabete geroago, Almagro Gorbea irakaslearen aurkako krimen-kereila baten tramineak martxan jarri zituen aztarnategiko indusketez arduratzen zen enpresak (Lurmen S.L.), egunkari batean Iruña-Veleiako euskarazko idazkunak «faltsutze baldarra» zirela adierazteagatik.

### **Biltzar Nagusietako agerraldia**

Baina, azkenean, Veleiako idazkunen benetakotasuna zalantzan jarri zutenen susmoa baieztatu dute batzorde zientifiko kideek. Historialariek, hizkuntzalariak, arkeologok, kimikariek... Denek ondorio bera izan dute: aztarnategia benetako bada ere (herri erromatarra da), idazkunak faltsuak dira.

Lorena Lopez de Lacalle Kultura diputatuak batzordearen ondorioak aurkeztu zituen azaroaren 19an Arabako Batzar Nagusietan, Joaquín Gorrotxategi, Joseba Lakarra, Juan Santos Yanguas, Julio Nuñez eta Juan Manuel Madariaga adituekin batera. Agerraldi horrek ikusmin handia sortu zuen, ordurako idazkunen inguruko zalantzak ahoz aho baitzeuden. Eta, aditu taldeak egindako azterketak zalantza horiek baieztatu zituen, grafitoen egiazkotasuna ikuspuntu guztietatik baztertu baitzuten adituek: ikuspuntu arkeologikotik, epigrafikotik, linguistikotik, filologikotik...

Veleiako euskarazko idazkunak faltsuak direla azpimarratu zuten hizkuntzalariak. Euskarazko hitzen morfologia, sintaxia eta fonetika aztertu ondoren ondorioztatu zuten "erabat ezinezkoa" dela hitzok III. eta VI. mende artekoak izatea. "Gezuraren gainean ez da ezer eraiki, ezta euskararen historia ere". Esaldi horrekin Lakarrak irmo adierazi zuen aurkitutako euskarazko idazkunak ez direla benetakoak. III. eta VI. mendekoak ez ezik, IX, XI, XVI edota XIX. mendekoak ere ezin zirela izan ziurtatu zuen, gainera. Adibide ugari jarri zituen bere baieztapenak argudiatzeko: *Lagun* hitza





# Hizkuntzalarien alde

Analisis hizkuntzalarien alde...

**Analisis hizkuntzalarien alde**

V... Hizkuntzalarien alde...

**Analisis hizkuntzalarien alde**

V... Hizkuntzalarien alde...

**Analisis hizkuntzalarien alde**

V... Hizkuntzalarien alde...

# Vivir

EL COMITÉ DE EXPERTOS DE Iruña-Veleia

«Las piezas son auténticas, pero no soy responsable de certificar las inscripciones»

El director de Veleia sostiene que sólo se ocupó de la parte arqueológica y se niega a hablar de las falsas epígrafas. «Porque no es mi disciplina»

EL DIRECTOR DE VELEIA SOSTIENE QUE SÓLO SE OCUPÓ DE LA PARTE ARQUEOLÓGICA Y SE NIEGA A HABLAR DE LAS FALSAS EPÍGRAFAS. «PORQUE NO ES MI DISCIPLINA»

# berria

Espazio estazioak, hamar urte Hamar urtean Lurretik kanpoko laborategi handiena bihurtu da ISS. eta hazten ari da oraindik ere

## Iruña-Veleiak aurkikuntzak «falsuak» direla azaleratu du Ikerketa Batzordeak

2012an arte Iruña-Veleia ustiatzeko izen baimena kendu du Oinarritzaile Eliseo Gilen irakasketa taldeak, aurkikuntzak dituzten zientzialariek ez dutela onduzioratatu onartzen

# Diario

Noticias de Alava

## La autenticidad de Iruña Veleia queda en jaque con el varapalo de los expertos

Las expectativas habían de fallos los grafitos cuestionados y polvorientos

Las expectativas que habían de fallos los grafitos cuestionados y polvorientos

# GARA

El comité de expertos certifica la falsedad de los polémicos hallazgos de Iruña-Veleia

Los responsables del yacimiento arqueológico de Iruña-Veleia presentaron hace dos años unos sorprendentes hallazgos, que adosaban al siglo III la aparición del euzkera. El informe encargado por la Diputación de Araba constata ahora un fraude de dimensiones casi históricas.

Las piezas que se encontraron en el yacimiento de Iruña-Veleia, que se atribuyeron a un siglo III, se han demostrado que son falsas. El informe encargado por la Diputación de Araba constata ahora un fraude de dimensiones casi históricas.

# GARA

## El comité de expertos certifica la falsedad de los polémicos hallazgos de Iruña-Veleia

Los responsables del yacimiento arqueológico de Iruña-Veleia presentaron hace dos años unos sorprendentes hallazgos, que adosaban al siglo III la aparición del euzkera. El informe encargado por la Diputación de Araba constata ahora un fraude de dimensiones casi históricas.

Las piezas que se encontraron en el yacimiento de Iruña-Veleia, que se atribuyeron a un siglo III, se han demostrado que son falsas. El informe encargado por la Diputación de Araba constata ahora un fraude de dimensiones casi históricas.

# Los protagonistas

Los políticos arroparon un fraude que terminó en los tribunales

Los protagonistas de este fraude que terminó en los tribunales

# Un árbitro independiente debería dirimir el conflicto sobre Veleia

El escándalo de Iruña Veleia

Un árbitro independiente debería dirimir el conflicto sobre Veleia

# Gil insinúa que todo es un montaje para dejar la excavación a la UPV

Afirma que «todo lo de los 25 expertos han emitido informes contundentes sobre la falsedad de los hallazgos»

Gil insinúa que todo es un montaje para dejar la excavación a la UPV

# Plaza Kultura

## Veleiako idazkunak «falsuak» direla diote ikertzaileek

Arabako Diputazioak auzi taldeak erabari baxtertu du Iruña-Veleiako aurkikuntzak III. eta IV. mendean eratuak direla

Aurkikuntzak ez direla euzkera «lehenetarik» ez dutela ikertzaileek

Arabako Diputazioak auzi taldeak erabari baxtertu du Iruña-Veleiako aurkikuntzak III. eta IV. mendean eratuak direla

# Así se montó el calvario de Veleia

El escándalo de las falsas inscripciones se explica por la precipitación en mostrar los hallazgos y la inconstancia académica de algunos expertos

Así se montó el calvario de Veleia

# Los grafitos de Iruña-Veleia fueron falsificados sobre piezas auténticas

La Comisión Científica de Investigación sobre Iruña-Veleia presentó ayer las conclusiones de su trabajo que demuestran que los grafitos en euzkera, representaciones cristianas y jergoníficas que se encontraron en el yacimiento fueron falsificados. Como consecuencia, la Diputación revoca el permiso de ocupación y excavación a Larrea, el actual equipo dirigido por Eliseo Gil que ha mantenido la defensa de los hallazgos, y traslada el control directo del yacimiento.

Los grafitos de Iruña-Veleia fueron falsificados sobre piezas auténticas

agertzen da, baina garai hartarako *adiskide* hitza beharko luke. *Polita* forma euskaraz azaltzea ezinezkoa dela esan zuen, gaskoineraren mailegu modernoa baita. Tipografia ere ezinezkoa zen garai hartako idazkera latinoan, esaterako, letra xeheak, koma eta puntuak ez ziren orduko idazkeran erabiltzen. Areago, hizkuntzalarien ustetan, euskararen historiarekin "inolako koherentziarik" ez dute aurkitutako euskarazko idazkunik. "Zehaztasun falta eta kontradikzioak" daudela, eta euskararen historian uztartu ezin daitezkeen hitzak daudela aipatu zuten ondorioetan.

Epigrafiaren alorrean egindako ikerketa Santos Yanguasen esku egon da, eta hark ziurtatutakoaren arabera, ostraketan idatzita agertzen diren hainbat izen ezin dira III. eta VI. mende artekoak izan. Emandako adibide ugarien artean, hauek aipagarrienetakoa: **Nefertiti** eta **Nefertari** Egiptoko erreginak. Forma horiek ez dira ezagunak egin XIX. mendera arte. Nefertiti, adibidez, kon-

bentzio bat da, idazkera egipziarretik ez baitago tarteko bokalak igartzerik eta ahoskera zehatza jakiterik. Areago, pertsonaia historiko gisa, XIX. mendean berreskuratu zuten Nefertiti ahanzturatik, iturri greko-erromatarretan galdua zegoen haren gomuta. **Seti eta Ramses**, beste bi faraoi, forma horietan ageri dira: kasualitatez, gaurko gaztelarazko formak dira, ez Sethus edo Rampses forma greko-latino klasikoak. **Deirdre** jainkosaren izena ageri da nonbait. Irlandako mitologia zeltikoko pertsonaia da hori, eta haren mitoen aipu historikoak askoz beranduagoak dira historian.

Egindako ikerketaren arabera, bestelako frogak ere badaude idazkunak faltsuak direla ziurtatzeko: esaterako, esaldi latino modernoak agertu direla, eta ez erromatarren garaikoak. Adibidez, *Homo proponit, sed Deus Disponit*, Thomas Kempis fraideak XV. mendeko liburu batean ezarritakoa da; edo *Ad Maiorem Dei Gloriam*, San Inazio Loiolakoak XVI. mendean sortutako

Jesusen Lagundiaren leloa da. Latina italiannismoarekin nahastuta agertu izanak ere egiazkoak ez direla erakusten du, adituen arabera. *Cuore* ageri da (Bihotza) baina hori italiara da, ez latina. Latinez, *Cor Cordis* da bihotza. Gainera, latina, zenbait kasutan, ez dagoela zuzen idatzita ondorioztatu da: hala, *Marco* izena ageri da, baina *Marcus* beharko luke.

Arkeologiaren alorretik ere zalantzarik ez, Julio Nuñezek emandako ondorioen arabera. Batetik, Veleiako aztarnategian erabilitako indusketa prozedura bera ez dela fidagarria esan zuen, eta bestetik, idazkunen faltsutasuna nabarmendu zuen, adibide ugari jarrita. Besteak beste, ezinezkotzat jo zituen kristo gurutziltzatua irudia edota sirena bat III. mendean agertu izana, biak ondorengo garaietakoak baitira. Hieroglifiko egipziarrei dagokienez, berriz, Veleiako aurkikuntzak baino 500 urte lehenago utzi zitzaion horiek erabiltzeari, Nuñezek azaldukoaren arabera.



## ELISEO GILEN TALDEARI USTIATZEKO BAIMENA

Iruña-Veleiako Aztarnategiko Azterlan eta Ikerketarako Batzorde Zientifiko-Aholkulariak egindako txostena ezagututa, berehalako erabakia hartu zuen Arabako Diputazioko Kultura diputatuak: Eliseo Gilen arkeologo taldeari 2012. urtera arte Iruña-Veleian aritzeko zuen baimena eten zion. Hala jakinarazi zuen Lorena Lopez de Lacalle Kultura diputatuak azaroaren 19an, Batzordeko kideekin batera Arabako Biltzar Nagusietan egindako agerraldian. Egun horretan bertan Eliseo Gili gutuna bidali zion Kultura diputatuak, aztarnategia okupatu eta ustiatzeko baimena bertan behera geratzen zela helaraziz. Indusketaz arduratzen zen enpresari (Lurmen S.L.) baimena etenda, Arabako Aldundiak hartu zuen Iruña-Veleiako aztarnategiaren kudeaketaren ardura zuzena. Gainera, Lopez de Lacallek agerraldian esan zuenez, delitu aztarnarik ikusiz gero, Fiskaltzaren esku utziko zuen auzia, ikerketa zabaldu zedin.

Nolanahi ere, kultura diputatuak argi utzi nahi izan zuen hartutako erabakiarekin ez zuela auzitan jarri nahi aztarnategiko indusketaz ordura arte arduratzen zen enpresako kiderik, ezta indusketen zuzendaria ere. Gainera, indusketaz arduratzen zen enpresari baimena eten arren, bisita gidatuen pro-

grama eta INEMek eta Oka-Iruñako Udalak sustatutako lan esparrua bere horretan mantenduko direla jakinarazi zuen.

Behin erabaki hori hartuta, Iruña-Veleiako aztarnategiaren etorkizunari begira jarri zen Kultura saila. "Gure erantzukizuna da, kontuak kontu, etorkizun oparoa izan dezala posible egitea, eta ildo horretatik ibiliko da Arabako Foru Aldundia, aztarnategiak ustiatu gabeko aukera handiak dituelakoan". Lopez de Lacallek aitortu zuen aurkikuntzen inguruan gertatutakoa "kolpea" dela Iruña-Veleiako aztarnategiarentzat, baina aurrera begira "energiaraz eta baikortasunez" jarduteko konpromisoa bazuela. Oinarri batetik abiatuta hartu zuen aurrera egiteko konpromisoa: Iruña-Veleiako aztarnategia Euskal Herriko kultur ondarearen "aparteko elementua" dela, bai eta gure herriko antzinaroko garai desberdinak hobeto ezagutzeko "gakoa" ere. Gainera, gogoratu zuen 1915ean Oroitarri Nazionala izendatu zutela Iruña-Veleiako aztarnategia. Hala, Iruña-Veleiako garrantzi historikoaz jabetuta, Arabako Diputazioak "aro berria" gidatzeko konpromisoa hartuko zuela azaldu zuen, alor guztiak aztertuko dituen egitasmo berria martxan jarrita. "Veleiari merezi duena emango diogu", adierazi zuen.

**44** Euzkaleren "Gentil" ezabatzea...  
**45** PSE-EE, EHAK, EA eta Arrieta...  
**Zientzia gehiago eskatu du Gilek**  
 Gilek...  
**La Diputación gestionará el yacimiento directamente**  
 Astelehen...  
**berria**  
 Ostria Azararen 21a  
 Piriñeiko pasioa...  
**Iruñura ukatu eta «lintxatze mediatico» salatuta du Eliseo Gil arkeologoak**  
 Berria...  
**Plaza Kultura**  
**Diputazioaren txostenak «irtziak» dituela oinarri dio Veleiako buruak**  
 Oinarri arte Veleiako...  
**Las Pousas Normas se contradicen entre las diferentes piezas de Veleia**  
**La Falza de Sintaxis Obliga al lector a completar el significado del texto**  
**«SÍ NO», UN JUEGO DE ROMANOS, AUNQUE CON UN LENGUAJE CASTELLANIZADO Y ACTUAL**  
**IMAGEN DE PRESENTACION DE LOS hallazgos**  
**Alundiarri babesa agertu dio Eusko Jaurlaritzak**



**Eliseo Gil ezalzan jarri dio arkeologikoen faltuztat jotzen dituzten txostenen ondorioak**

Eliseo Gil, arkeologoa, azararen 21an...  
 Berria...  
 Plazak...  
 Diputazioaren txostenak...  
 Veleiako buruak...  
 Las Pousas Normas...  
 La Falza de Sintaxis...  
 «SÍ NO»...  
 Imagen de Presentación...  
 Alundiarri babesa...

# ETEN DIO DIPUTAZIOAK

Lopez de Lacalleren hitzetan, Arabako Aldundiak "erantzukizunez" jokatu nahi du auzi honetan. Sortutako egoerak "beste norabide batean" jardutea eskatzen duela iritzita, aztarnategiari bultzada nabarmena eman behar zaiola uste du kultura diputatuak. Bultzada hori, bai diruz, bai plangintzaz etorriko da, baita arkeologia sektore osoaren ibilera berriskuteko proposamena mahai gainean jarrita ere. Hala, besteak beste, Diputazioak urte honetarako 140.000 euroko diru partida bideratuko dio Veleiako aztarnategiari, orain arte inbertitutakoren halako hamabi. Diru horrekin Diputazioak erakutsi nahi du Veleiaren aldeko "apustu sendoa" egin nahi duela, kultura diputatuaren esanetan. Eusko Jaurlaritzak ere Iruña-Veleiako egitasmoaren aldeko apustuari eutsi nahi izatea "albiste ona" da, bere aburuz, eta erakusten du egoerak eskatzen duen mailara jokatzen ari dela. Arabako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ez ezik, bestelako erakundeen babesa ere jasotzea espero du kultura diputatuak, Iruña-Veleiako aztarnategiak eskaini ditzakeen aukerak zabalak direlako.

Veleiako aztarnategiaren egitasmoa berregituratzeko proiektua martxan jartzea da Diputazioaren helburua. Egitasmo "arkeologiko eta zientifiko" berriaren bitartez,

Veleiako irudiari bultzada ematea, indusketak zaintzea, ikerketak sustatzea eta bertako ondarea zabaltzea lortu nahi du. Hartarako, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean arituko da Arabako Foru Aldundia.

Iruña-Veleiako auziak, gainera, Arabako arkeologia alorraren egituraketa berritzeko balio behar duela uste du Aldundiak, etorkizunean bestelako arazorik gerta ez dadin, eta oro har, lurraldeko arkeologia jarduerak berme guztiak izan ditzan. Horretarako, Arabako arkeologia ondarea zaindu eta babesteko tresnak martxan jartzeko kopromisoa hartu du Aldundiak. Hala, kultura diputatuak uste du egokia litzatekeela Arabako Arkeologia Plan berria lantzeari ekitea, indusketak burutzeko baldintzen eta finantziazio araudiaren eguneraketa lortzeko. Plan horrekin, berezita geratuko lirateke bi alor, Lopez de Lacalleren hitzetan: batetik, Arabako Diputazioaren Ondare Historiko-Artistiko eta Arkeologikoaren esku geratuko litzateke Arabako arkeologia ondarearen kudeaketa eta kontrola, eta bestetik, Arkeologia Museoak kudeatuko luke arkeologia materialaren biltegia.

Kimika Analitikaren ikuspuntutik ere erabat baztertu da egiazkotasuna. Batzorde zientifikoak ateratako ondorioen arabera, azpimarratzekoa da ostraketan espektro-jarrakortasunik ez dela ematen. Keramika piezei infragorriekin egindako probetan ageri da desberdintasun nabarmenak daudela trazu batzuen eta inskripzioen artean, gai organiko eta ez-organikoen arteko nahasketak eraginda. Idazkunak benetakoak zirela frogatzeko 2006an piezen pati-

naren gainean egindako frogek ere ez dute baliorik, ez omen da froga fidagarria, aditu kimikoen ustetan. Azaldu zuten, Sonorako desertuan erabili izan da inoiz, baina ez Europan, hezetasunagatik eta ez omen duelako funtzionatzen.

Nork egin dituen idazkunak, hori da orain denen buruetan dabilen galdera. Adituek ez dituzte faltsutzeak XVI. mendean kokatzen, baizik eta, gutxienez XX.

mendean. Areago, zenbaitzuek uste dute XX. mende bukaeran egin zirela, 90eko hamarkada inguruan, hain zuzen ere, ustez deskubritu ziren garaian bertan. Veleian aurkitutako idazkunak bi pertsona baino gehiagok manipulatu ditzutela uste dute. Gorrotxategiren arabera, hizkuntzaren historia ongi ezagutzen ez duen batek egin du faltsutzea, "euskara eta latina asko menperatzen ez zituen norbaitek" ●

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**JULIO HÚREZ**  
PROFESOR DE INVESTIGACIÓN DEL IANIGLA

**"Ahorra hay que echarse para adelante y cuidar Iruña Veleia más que nunca"**



Resumen que desde la perspectiva de un investigador de los hallazgos de Iruña Veleia, el profesor de Investigación del IANIGLA, Julio Húrez, afirma que "ahorra hay que echarse para adelante y cuidar Iruña Veleia más que nunca".

... cuando se le plantea en la primera parte "¿Qué más verdad, al fin, más verdad, verdad?"

**Miren Azkarate afirma que los informes sobre el yacimiento son "contundentes"**

... "Cuando se le plantea en la primera parte "¿Qué más verdad, al fin, más verdad, verdad?"

... "Cuando se le plantea en la primera parte "¿Qué más verdad, al fin, más verdad, verdad?"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**PP, PSE y PNV piden salvar el yacimiento del escándalo**

... "No hay pagamiento para reparar el bazar cuando se cuestiona" "No ha podido ser" los informes, pese a ser de la comisión"

... "No hay pagamiento para reparar el bazar cuando se cuestiona" "No ha podido ser" los informes, pese a ser de la comisión"

... "No hay pagamiento para reparar el bazar cuando se cuestiona" "No ha podido ser" los informes, pese a ser de la comisión"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**La Diputación retira del yacimiento al equipo de Eliseo Gil**

EL GOBIERNO FORAL ANUNCIA QUE LA UPV COLABORARÁ ESTRECHAMENTE EN LA "NUEVA ERA"

El ya en directivo del proyecto, que siempre ha negado las dudas sobre las piezas, volverá hoy las conclusiones de la comisión



... "Me causa extrañeza que el arqueólogo en Álava para garantizar de seguridad" "Reestructuramos toda la arqueología en Álava para replantear la financiación de la excavación" El arqueólogo Eliseo Gil se enfrenta a algunos conflictos de interés de un gran historial

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**La comisión de expertos sobre Veleia sostiene que los grafitos de religión y euskera son falsos**

LOS COLECTIVOS AGINALDE Y EUSKARAREN BILTZARRA PONEN EN DUDA QUE LOS HALLAZGOS SEAN FALSOS



... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**Los propios arqueólogos han cuestionado los métodos aplicados en Veleia; no podíamos esperar para actuar**

LOS COLECTIVOS AGINALDE Y EUSKARAREN BILTZARRA PONEN EN DUDA QUE LOS HALLAZGOS SEAN FALSOS

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**Diario Noticias de Álava**

LORENA LÓPEZ DE LACALLE  
DIPUTADA ALAVESA DE CULTURA

**"Ha sido un golpe, pero no hay duda de que en Veleia había piezas falsas"**

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**Eliseo Gil critica que se dude de su trabajo por "opiniones" y se siente víctima de un "linchamiento"**

EL ARQUEÓLOGO Y EX DIRECTOR DE VELEIA ANUNCIA QUE ACUDIRÁ A LOS TRIBUNALES

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**Los propios arqueólogos han cuestionado los métodos aplicados en Veleia; no podíamos esperar para actuar**

LOS COLECTIVOS AGINALDE Y EUSKARAREN BILTZARRA PONEN EN DUDA QUE LOS HALLAZGOS SEAN FALSOS

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

LOS HALLAZGOS DE IRUÑA VELEIA, EN LA PICOTA

**Diario Noticias de Álava**

LORENA LÓPEZ DE LACALLE  
DIPUTADA ALAVESA DE CULTURA Y DEPORTES

**Los propios arqueólogos han cuestionado los métodos aplicados en Veleia; no podíamos esperar para actuar**

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

... "Me causa extrañeza que, durante dos años, el problema de Veleia se deja en un limbo"

geupertsonaia

**ELISEO GIL, IRUÑA-VELEIAKO ZUZENDARI OHIA:**

**“AKASO, BATEN BATEK  
ESAN DUEN MODUAN,  
PIEZAK EZKUTATU BEHAR NITUEN?”**



Azaroaren 19tik aurrera Iruña-Veleiaren gaia lagun ugariaren ahotan egon da gertatutakoa ulertu asmoz. GEUK Eliseo Gil Iruña-Veleiako aztarnategiaren zuzendari ohiarekin bildu nahi izan du, ahal den neurrian gauzak argiago utzi eta bere egoeraren inguruko xehetasunetan murgiltze aldera. Horra hor berarekin izandako solasaldia.

t. estitxu breñas glz de zarate & kike fdz de pinedo  
a. edorta sanz & artxibo

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Aurkikuntzak agertu zirenetik prozesuak izan dituen fase guztiak banan-banan, kronologikoki eta laburki azalduko al dituzu?**

Lehenik eta behin komenigarria da gogoraztea Veleiako aurkikuntza *eztabaidagarriak* arkeologia ikerketa prozesu baten baitan gertatu zirela. Ondorioz, topatutako kontestuetako gainontzeko material arkeologikoak bezala tratatuak izan ziren.

1-Aurkikuntzak identifikatzea. *Graffiti*en zati bat *in situ* identifikatu ziren, indusketa prozesuak irauin bitartean, eta koodenatuak (espazioan kokatuak) izan ziren, eta zuzenean inbentarioa egin zen beraiekin, ebidentzia garrantzitsu guztiekin bezala. Beste zati batzuk, (ohikoa den moduan) itsatsitako lurreko zarakar dezenterekin edota karbonozko zehaztasunekin agertu zirenez (gure inguruetan aurkitutako keramika askoren ohiko egoera da), haiek garbitu eta prozesatu zirenean identifikatu ziren. Horrek ondorengo puntura garamatza:

2-Materialak garbitu eta prozesatzea. *Material orokorretan* gertatu ohi den prozesua da (keramikak, hezur hondarrak, eraikuntzazko materialak, eta abar). Destilatutako urarekin, eskuekin eta pintzel leun batekin garbitzen da. Tratamendu hori egitean, normalean zarakarraren zati bat kentzen da, eta horregatik, graffiti gehiago identifikatu ziren. Ondoren, zegozkien erreferentzia orokorrek inbentarioa egin zen. Materialak, lehenik, mota eta euskarrien arabera sailkatu eta siglatu egiten dira. Hau da, zehatz-mehatz aurkitu den tokia zehazten duen erreferentzia batekin identifikatu egiten dira. Erreferentziak (inbentario-

aren edo testuinguruaren zenbakia) tinta txinatarrekin idazten dira eta azkazal-esmalte gardenarekin babesten da. Osteen, behar bezala etiketatutako plastikozko poltsetan sartu eta kutxetan biltzen dira.

3-Aurretiazko klasifikazioa. Keramiketako ebidentziak dira, ziurrenik, lan gehien ematen dutenak; kontestu bakoitzaren barruan moten arabera siglatu eta bildu ostean, berrikusten dira dauden banakak finkatzeko. Modu horretan identifikatu eta bildu egiten dira pieza edo ontzi berberari dagozkion zati desberdinak. Hortik aurrera, zatitutako piezak itsatsi egiten dira, marrazkiaren, argazkiaren eta motaren arabeko ondorengo sailkapena erraztu aldera.

**hasiera-hasieratik, eta marko teoriko gisa, lan hipotesi guztiak ebaluatu dira**

4-Espezien arabeko azterketa. Arkeologia-ebidentzietan aditu desberdinek materialak zenbatu, aztertu eta klasifikatzen dituzte (keramika meheak, ohiko keramikak, lukanak, hezur-tresnak, fauna, eta abar), datu bilduma emanez: kronologikoak, funtzionalak, jatorriaren eta komertzio sareen arabekoak, eta abar. Halaber, argazkiak atera eta marraztu behar diren materialen behin betiko zerrenda egiten da.

5-Azterketa epigrafikoa. Adituek inskripzioaren edo grabatuaren *autopsia* egiten dute, banakako fitxa egin eta ebidentzia bakoitzaren fitxa arkeologikoari atxikituz.

6-Egoera normalean, Arabako Arkeologia Museoren esku utziko lirateke materia-

lak (Eusko Jaurlaritzak hartarako izendatutako zentroa da). Eta inskripzioen eta grabatuaren azterketari ekingo litzaioke (historikoa, filologikoa, ikonografikoa, eta abar). Alabaina, Veleiako aurkikuntzen kasuan, hirugarren fasearen ondoren, aukeratutako material batzuei kationen tasen arabeko patinen azterketa egin zitzairen, eta horiek guztiak Museoaren esku utzi ziren, bertan ere bosgarren faseari ekin baino lehen.

**Lau aukera hauen artean aukera ezazu: a) Faltsua b) Egiatzkoa c) Iruzurra d) Denak**

Hasiera-hasieratik, eta marko teoriko gisa, lan hipotesi guztiak ebaluatu dira. Egia da Batzordeko kide batzuek emandako agintezko argudio historikoak, epigrafikoak edo filologikoak norabide batean doazela, eta gure dokumentazio arkeologikoak beste batean.

**Zein izan da azken 14 urteotan Iruña-Veleiako zuzendaritza eta lan-talde ohiak izan duen dinamika eta funtzionamendua?**

Bestelako arkeologia interbentzio handiekin alderatuta, egitasmo honen zuzendaritza uneoro zuzenean gauzatu da. Halaber, taldeen egonkortasuna bilatu da, bere garaian Eusko Tren-ekin izenpetutako hitzarmenetik aurrera, eta hura bertan behera utzi arte plantila tinkatzea lortu da. Jarduera horren diseinua hiru ardatzetan oinarritu da: ikerketa, kontserbazioa eta zabalkundea.

**Eta 2006ko aurkikuntza polemikoen ondotik?**

Aholkularitza batzorde tekniko bat egonda



ere, besteak beste Diputazioko eta EHUko hainbat kidek osatuta (Santos irakasleak eta bere taldeak, besteren artean), aurkikuntzen ezaugarrien arabera beste aditu batzuetara jo zen; hau da, EHUko irakasleak diren Gorrotxategi eta Knörr irakasleengan, antzinako euskararen adituak.

**egia da batzordeko kide batzuek emandako agintezko argudio historikoak, epigrafikoak edo filologikoak norabide batean doazela, eta gure dokumentazio arkeologikoak beste batean**

**Zein froga egin zaizkie azken aurkikuntza horiei?**

Aurkikuntza zati garrantzitsu bati kationdun tasaren arabera patina azterketa egin zitzaion, Ruben Cerdanek koordinatutako ikerketaren bitartez. Eta berak emandako ondorioek zioten egindako proben arabera egiaztatuta zegoela jarraikotasuna azalean eta grabatuetan; beraz, piezek inskripzioak zituzten lurperatuta izan zirenean.

**Eguno batzordeak atzera bota ditu aurkikuntza horiei egun martxan dauden hainbat laborategik egindako froga fisikoak eta horrek eraman gaitzake pentsatzera Iruña-Veleiakoak ez ezik, laborategi horiek aztertutako beste aztarnategietan egindako ikerketek eta ondorioek ere baliorik ez izatea?**

Ez, emandako analisiak ez dira baloratu, besterik gabe. Gertatu dena da iritzi publikoaren aurrean nahastu egin direla aztertutako aztarnetako material organikoei egindako Karbono 14ko frogak. Alabaina, Batzordeko Fisika arduradunak (Legarda ira-

kasleak) bere txostenean dio geuk erabilitako laborategia (Groningen-eko Unibertsitateko Isotopoen Laborategia) prestigio handikoa dela.

**Azaroak 19. Batzordeko bilerara joan zinen, bertako kide moduan, aurkikuntzen inguruko behin betiko ebazpenari begira lanean jarraitzeko ekarpen txiki batzuk eraman zenituen, eta berehala kanporatuta zaudela jakinarazi zizuten. Segituan faltsutasunari eta iruzurrari buruzko bertsio ofiziala emateko prentsaurrekoa eman zuten. Eta ordura arte zure lantokia izandakora ezin zarela joan esan zizuten, zure lanabesak jasotzeko denborarik eman gabe... Hala da?**

Hala da, bai. Gure ustez *antzezpena* ikuspegi orotatik gehiegizkoa da eta ez da beharrezkoa: aztarnategiaren atea katez itxita eta segurtasun enpresa batek babestuta dago, ostean lintxamendu mediatikoa, errugabetasun presuntzio eza, irudia eta izena irainduta, hitzarmena bertan behera... Eta hori kontuan hartzeke egindako giza eta lan arloko *zeharkako kalteak*...

**prentsan agertu zena gorabehera, madariaga irakasleak (batzordeko kimika arduradunak) bere txostenaren ondorioetan zehatz-mehatz dio "ikusuntu kimikotik ezin dela baieztatu piezak faltsuak direla, ezta egiazkoak ere..."**

**Itxura batean argudio ugari dago ikusuntu filologiko, epigrafiko eta histori-**




**ko-kulturaletik aurkikuntzen egiazkotasuna ezinezkotzat jotzeko...**

Duda barik hori da helarazi nahi izan dena. Edonola ere, komenigarria da bereiztea prentsaurrekoan esan zutena eta txostenaren edukia. Halaber, azpimarratzekoa da polemika iturri nagusienak (gurutzea, RIP, Nefertiti, eta abar), Canto irakasleak (UAM) ongi nabarmendu duen moduan, Interneteko gune ezagun batetik ateratakoak direla.

**Nolanahi ere, Iruña-Veleiako lan-taldek egindako ikerketekin batera batzordeak ez du egiaztapen fisiko-kimiko-mineralogiko bateragarriarik eta koordinaturik egin faltsutasunaren hipotesia (eta iruzurrarena) frogatu dadin, behin betiko teoriarik eta joera nagusian bilakatu aurretik...**

Lehenik eta behin, nire iritziz, Batzordeak ez ditu aurkikuntzen inguruko lan hipotesi guztiak baloratu, horiek atseginak ala ez





El hasta ayer director del yacimiento de Iruña-Veleia manifestó sus dudas sobre el rigor del informe de la comisión científica aludiendo a que sus conclusiones son fruto de las opiniones de los expertos. Rebatió dos detalles del informe y, sin dejar espacio a preguntas, anunció que tomará medidas legales y administrativas y pedirá dimisiones de políticos.

El hasta ayer director del yacimiento de Iruña-Veleia manifestó sus dudas sobre el rigor del informe de la comisión científica aludiendo a que sus conclusiones son fruto de las opiniones de los expertos. Rebatió dos detalles del informe y, sin dejar espacio a preguntas, anunció que tomará medidas legales y administrativas y pedirá dimisiones de políticos.



Ante el escándalo causado por las conclusiones de la comisión de expertos que ha investigado el yacimiento alavés de Iruña-Veleia, y que califican sin tapujos de fraudulentos a los restos hallados, él era ayer la persona más buscada. Eliseo Gil, director del yacimiento y de la empresa que lo gestiona, comparó ante la prensa sus autenticas y que las acusaciones de falsedad sólo «están sustentadas en opiniones». El yacimiento amaneció ayer cerrado con una cadena.

izan (bakoitzaren ikuspuntuaren arabera), eta arlo deigarrienak azpimarratu ditu, bereziki komunikabideei begira. Bigarrenik, ez dira pieza guztiak sistematikoki aztertu. Eta, bukatzeko, prentsan agertu zena gorabehera, Madariaga irakasleak (Batzordeko Kimika arduradunak) bere txostenaren ondorioetan zehatz-mehatz dio "ikuspuntu kimikotik ezin dela baieztatu piezak faltsuak direla, ezta egiazkoak ere..."

**gure ikerketa prozesua hobetu daiteke, beste edozein bezala, duda barik**

**Egia al da Aduituen Batzordea deituri-koaren arkeologoak ez direla aztarnategian egon? Nola uler daiteke hori? Batzordeak landa-lanik eta ikerketarik burutu al du zu kanporatua izan arte? Zein datu eta frogatan oinarritu dute behin betiko txostena?**

Batzordeak iraun duen hamar hilabeteetan soilik bisita bat izan dugu, Quiros irakasleak egindakoa, eta harekin solasaldi informala izan genuen. Ez zen *in situ* elkarlanik egin, ez eta inolako dokumentazioarekin ere, ez zitzaigun kontsultarik egin landa-lanaren inguruan egindako ikerketaren gainean, ezta borondatez aurkeztutako dokumentazioari buruz ere. Ez dago behin betiko berezko deklaraziorik, eta Batzordearen baitan ez zen ondorio bateratuetako txostenik ere egin.

**Argi dago bertsio ofizialean frogak eta datuak falta direla... Zuk frogak gehiago eskatu zenituen, baina ez dira egin. Zeintzuk? Zuen aldetik ere frogak falta izan dira... Egia al da proposatu zenuela aurrez kontzienteki ikutu ez zen zonalde batean indusketak egitea, bertan aurkitutakoen antzeko aurkikuntzak topatu zitezkeelako, eta ez zutela egin nahi izan?**

Proposamen multzo handi bat, analisi fisiko-kimiko gehiagotan laburbildutakoak (aurkikuntzen azterketa makroskopikoa, datazio absolutuzko analitika gehiago, mikrosedimentologia, paleoinguru-

men ikerketak, patinen azterketen alderaketa, eta abar), iritzi eta ikuspuntu zientifiko gehiago biltzea eta egiaztatze prozesuak burutzeko bazter batean geratu dira.

**Hori horrela, zein da zure taldeak prozesu honetan guztian egin dituen akatsak?**

Gure ikerketa prozesua hobetu daiteke, beste edozein bezala, duda barik. Urte hauetan guztietan nabarmena izan da lana borondate onez egin dela eta ondasunaren ikerketa, kontserbazioa, sustapena eta zabalkundea erakundeekin elkarlanean egin dela. Beste gai bat, egindako akats *estrategikoa* da, eta horiek jakina gure gain hartzen ditugu; bai eta hainbat pertsonarengan jarritako konfiantza ere, ez baitzaigu modu berean itzuli.

**Gizarteak datuak eta informazioa eskatzen dizkio bai alde bati zein besteari... Gauzak ez daude batere argi, eta askotariko iritziak entzuten dira...**

Zalantzarik ez dago gaia konplexua dela. Egin zaigun kritika nagusienak komunikazioari dagozkion hainbat ekintzarekin du zerikusia. Badirudi ondasunaren inguruko aditu bakarrak garela at geratu garenak UNESCOk hedapenari buruz ematen dituen gomendioetatik. Egia da Batzordea sortu zenetik Diputazioak komunikazioaren alorra eskusibitatez hartu zuela, eta Batzar Nagusietako agerraldiarekin eta lortutako eragin mediatikoarekin itxi zuela... Gogoeta horietatik harago, gure irudiko *Veleia* *auziak* irekita jarraitzen du, eta zientzia gehiago erabilita baino ez da hobetuko.

**urte hauetan guztietan nabarmena izan da lana borondate onez egin dela eta ondasunaren ikerketa, kontserbazioa, sustapena eta zabalkundea erakundeekin elkarlanean egin dela**

**Uste duzu sinesbera izan zarela prozesu honetan eta esku beltz batek**



### **zure etorkizun profesionala eta pertsonala zikindu duela?**

Nahiko argi dago fidakorra izan naizela, zergatik ez bada? Eta argi dago, halaber, nire izena eta etorkizun profesionala publikoki eta modu eraginkor batez laidoztatua izan dela.

### **Uste duzu arkeologiaren izaera multidiziplinarraren ondorioz gauzak ez direla modurik egokienean egin?**

Argi dago prozesu zientifiko guztiek, batez ere diziplina humanistikoak tartean daudenean, gabeziak izaten dituztela, baina denbora ere behar dutela. Eta denboraren kontrola, soilik baliabideen eta ikerketaren muga izan beharko lukeena, ez da gure esku egon...

### **Zer esaterik duzu Batzordeak emandako faltsutasun eta iruzurraren adibide eta frogen gainean? Adierazgarriena aipatuko zenuke? (Descartes, Nefertiti, itsasgarria,...)**

Itsasgarriaren gaia anekdota tamalgarria baino ez litzateke, ez balu horrenbesteko hautsik eragingo. Gogoratu behar da piezen manipulazioaren froga gisa jo zela! (hala ere, batzordearen txostenak ez du jasotzen). Descartes graffiti baten balizko irakurketa batetik egindako berreraikitze bat da, baina beste modu batez ere irakurri daiteke. Nefertiti izena, faltsutasunaren argumenturako gakoa, "ezinezkoa" da, baina beste aditu batzuen arabera posiblea da eta azalpena badu.

### **Eta zuen frogen inguruan zer esan dezakezu?**

Aurkeztutako baina baloratu ez diren analitikez harago, garrantzitsuena litzateke ikerketa arkeologikoaren prozesua bera; bere dokumentazioarekin, aurkikuntzak bat etorriko lirakeen sekuentzia estratigrafikoen finkatzearekin. Baina gure txostena ez da aintzat hartu.

### **Zein egoeratan gaude? Zer espero duzue Batzar Nagusietako agerralditik? Eta Auzitegitik?**

Oraindik shock egoera batean gaude, gauzak azkar gertatu dira, eta ondoren gaia

hedabideetan amaitutzat eman da. Gure irudia erabat hondatuta dago.

Batzar Nagusietan agertzeraz gonbidatzen bagaituzte, gonbidatuak izan ez ginen azaroaren 19ko antzezpenarekiko atzerapen nabarmenarekin egingo da. Auziaren alor judizialari dagokionez, aurkikuntzen balio historikoari eta haiekiko izan dezakedan erantzukizunari dagokionez, zientziaren esku nago erabat ikuspuntu profesionaletik, eta Justizia Auzitegien esku, ikuspuntu juridikotik. Ez dut hori baino gehiago eskatzen, ezta gutxiago ere.

### **Egungo Batzordeak ez ezik, norbaitek eskuratu al du txosten ofiziala, hura alderatu, aztertu eta benetako prozesu zientifikoa bermatzeko?**

Hasiera-hasierako unean gaude, eta muga operatibo asko daude. Gure baliabide eskasak erabilia, adierazitakoa alderatzeko gure ustez pertsona egokienak direnekin harremanetan jarri ginen, ikuspuntu zientifikoak eman zitzaizten. Pertsona horien intimitatea babestu nahi dugu, interferentziarik gabe lan egin dezaten...

### **Batzordea sortu zenetik, zein izan da bere funtzionamendua? Daukagun informazioaren arabera, soilik 5 aldiz batzartu da. Pieza kopuru handi hori aztertzeke nahikoa dela uste duzu?**

Nik ezagutzen dudanaren arabera, esan daiteke Batzordeak garapen "soziala" izan duela, aipatutako 5 bilera horietan oinarrituta. Batzordeak iraun duen 10 hilabeteotan ez da sistematikoki aztertu graffitiak zituzten piezak, ez besteak. Gogoratu behar da euskarrien sailkapen tipologiko-arkeologikoa egiteko urte pare bat behar izan ditugula; Santos irakaslearen taldeak analisi epigrafikoa egiteko erabili duen antzeko epea. Hori, kontuan hartu gabe aurkikuntzak osatzen duen gainerako informazio arkeologikoa prozesatzeko erabilatzen denbora. Guretzat martxan zegoen prozesua zen... Aurkikuntzei buruzko alderdi partzialen edo sektorialen inguruko txosten desberdinak idatzi da egin dena.

### **Guztira, zenbat pieza dira: 1.800 inguru eta horien artean, 500 idazkun inguru?**

Nahasketa eta sistematizazio ezaren beste adierazle bat da hori. Aurkitutako lehen multzoak (zeinaren indusketa prozesua amaituta dagoen) milaka ebidentzia biltzen ditu, eta horietatik 278 graffitiak dira. Horretaz gain, bi multzo gehiago eta hainbat aurkikuntza isolatu gehitu beharra dago.

### **Zuk dakizula zenbat lagunek izan dituzte piezak eskuetan, eta zenbat denboraz?**

Denbora tarte funtsezko batez, Iruña-Veleiako ikerketa taldeko kideek eta Kultura Saileko foru funtzionarioek ez ezik, Santos eta Cipres irakasleek ere, ikerketa epigrafikoren arduradun moduan. Gainera, behin batzordea abian jarrita, hainbat saiotan, Gorrotxategi, Knörr eta Lakarrak ere.

**“beste gai bat, egindako akats estrategikoa da, eta horiek jakina gure gain hartzen ditugu; bai eta hainbat pertsonarengan jarritako konfiantza ere, ez baitzaigu modu berean itzuli**

### **Eta nola da posible hasiera batean ustezko egiazkotasunaz hitz egiten zuten aditu horiek orain erabateko faltsutasun eta iruzurrez hitz egitea?**

Ez dakit.

### **Eta iruzurra baldin badago, nor izan daiteke egilea? Eta zergatik?**

Argi dago guk zentzu honetan zantzurik izango bagenu adieraziko eta jakinaraziko genukeela. Baina ez da horrela, eta beraz, hainbat forotan horrenbesteko jokoa eman duten alferrikako espekulazioetan sartuko gineteke hori eginez gero... Dena dela, ariketa literario gisa Lakarra irakaslearen txostena irakurtzea gomendatzen dut, non balizko arduradun baten *profila* egiten duen.

**“denboraren kontrola, soilik baliabideen eta ikerketaren muga izan beharko lukeena, ez da gure esku egon...”**





**Interneteko foroetan hainbat aukera aipatzen dira: pieza guztiak duela gutxi faltsutuak izan direla, piezen zati bat benetakoak izatea eta beste zati bat faltsuak, garai desberdinetako inskripzioak egotea eta datazioek huts egin izana, esku beltz batek duela gutxi pieza faltsuak sartu izana... Aukera hauetako baten bat gertatu dela uste duzu?**

Aipatu izan dut ikuspuntu teoriko batetik aukera guztiak aintzat hartu direla, baina ez dugu inolako zantzurik ezagutzen hori baieztatzeko.

**Ematen du faltsutasunaren hainbat froga eztabaida ezinak direla.. Zeintzuk diren ba al dakizu?**

Gogoratu beharra dago Batzordearen baitako diziplina zientifiko hutsak (kimika edo fisika kasu) ez direla inondik ere horretaz mintzo. Bakarrik geratzen zaizkigu diziplina humanistikoaren jarrerak, beren aginteazko argudioekin...

**Egiazkotasunari buruzko aukera, nola ikusten duzu?**

Kontrakoak erakusten ez diguten bitartean, egindako ikerketa arkeologikoak erromatar garaian eta antzinako berantiarrean kokatzen ditu aurkikuntzak. Horri gehitu egin behar zaizkio patinaren jarraikotasunari buruz egindako analitikak, zeinen emaitzei oraindik ez zaien erantzun.

**Badirudi auzi honetan norbait saiatu dela gaia bide zientifiko naturaletatik joan ez zedin.**

Begi-bistakoa dirudi. Esaterako, komunikabideetan goizegi agertu izana leporatu zaigu, baina egin duguna izan da gizarteari jakinarazi ikerketen aurrerapen bat, bere garaian adituek babestutakoa. Eta bitxia da bide bera behin eta berriz erabili dela faltsutasunak "salatzeko".

**Egia da lehen unetik egiazkoak ezin zirela izan aipatu zizutela? Hori defendatzen duenari eta, beraz, zuk ere zalantzak mahai gainean jarri eta material guztia erakutsi beharko**

**zenukeela esaten duenari, zer esango zenioke?**

Ez, noski. Gizakiaren memoria oso ahula da, antza denez. Zegozkien lan-taldeen esku, martxan zegoen ikerketa prozesu baten barruan egonda ere (euskarrien ikerketa arkeologikoa eta graffitien azterketa epigrafikoa), materialak gonbidatuta-ko ikertzaileei erakutsi zitzaizkien.

**Zuk zure begiekin ikusi al duzu graffiti polemikorik zeukan piezarik sekuentzia estratigrafikoetatik ateratzen?**

Hala da, bai. Batzuk nik, eta beste batzuk ikerketa lankideek.

**“ descartes graffiti baten balizko irakurketa batetik egindako berreraikitze bat da, baina beste modu batez ere irakurri daiteke**

**Posible da pieza batzuk manipulatua izatea eta beste inskripzio batzuk benetakoak izatea?**

Teorikoki dena da posible, baina ondareari zor zaion errespetu sakonetik, aurkikuntzekin sistematikoa izatea beharrezkoa zen, bai edukien ikuspuntutik bai ikuspuntu analitikutik, eta haien berrikuspen mikroskopikoa bezalako oinarritzko eta beharrezko ekintzak martxan jarri behar ziren.

**Jakin badakigu C14ak pieza datatzen duela, baina zailtasun handiagoak daudela grabazioa datatzeko. Demagun osotasunaren zenbait graffiti duela bi urte norbaitek egindakoak direla. Gaur gaurkoz modurik ba al dago bereizteko orain egindako grabazio bat duela ehunka urte egindakotik, nahiz era gero teknikak ez zehaztea zehatz-mehatz zein garaitakoa den? Hau da, egonez gero, egungo manipulazioak ezagutzeko aukera legoke?**

Lortzen diren emaitzak gorabehera, Argi dago prozesu hori abian jarri beharko litzatekeela, eta teknika horiek erabiltzea

kultura 35  
 GARA 2008/11/21 Europa  
 EGUNEKO GAIA

**CRONOLOGÍA**

**8 JULIO 2006**  
 El caso C14 analiza el hallazgo de una villa romana en Badajoz...  
**15 JULIO 2006**  
 Finales de julio 2006...  
**19 NOVIEMBRE 2008**  
 La cuestión de epígrafos...  
**20 NOVIEMBRE 2009**  
 El caso C14 analiza un hallazgo...  
**LA FALTA DE SINTAXIS OBLIGA AL LECTOR A COMPLETAR EL SIGNIFICADO DEL TEXTO**  
**«SÍ Y NO». UN JUEGO DE ROMANOS, AUNQUE CON UN LENGUAJE CASTELLANIZADO Y ACTUAL**  
**IMAGEN DE PRESENTACIÓN DE LOS HALLAZGOS**

posible da, egon badaude eta Zientzaren eskutik doaz.

**Ez al da benetan erraza jakitea RIP hizkiak hizki horiek diren ala altxatuta dauden hiru marra diren, anpliazioak eta dagokion material teknikoa erabili-ta? Hori egin da?**

Nire iritziz erraza izango litzateke. Analisi makroskopiko batek pieza horren eta gaine-rakoen inguruko argitasuna emango luke. Kasu horri dagokiolarik jakin badakigu informazioa badagoela. Baina ez da erabili, agerian denez.

**“nefertiti izena, faltsutasunaren argumenturako gakoa, “ezinez-koa” da, baina beste aditu batzuen arabera posiblea da eta azalpena badu**

Horrenbeste pieza artean, zilegia da pentsatzea, faltsutasun orokorrean sinesten dutenen aldetik, batzuk egiazkoak izan daitezkeen aukera

**onartzea. Zergatik ez da aintzat hartu ideia hori eta ez da ikertu egiaztatze-ko?**

Ez dakit. Izan ere, aukera hori espresuki agertzen da, hain zuzen, Cipres, Gorrotxategi edota Santos irakasleen txos-ten negatiboetan ere.

**“kontrakoa erakusten ez diguten bitartean, egindako ikerketa arkeologikoak erromatar garaian eta antzinako berantiarrean kokatzen ditu aurkikuntzak. horri gehitu egin behar zaizkio patinaren jarraikortasunari buruz egindako analitikak, zein-en emaitzei oraindik ez zaien erantzun.**

**Zer dago aztarnategian oraindik indus-katu ez dena?**

Zorionez, Iruña-Veleia aztarnategi itzela da, eta bere irudia eta ikerketa arkeologikoaren irudia arriskuan jarri bada ere, gure iragana ulertzeko erreferentzia baliotsua jarraitzen

du izaten. Ausartuko nintzateke esatera %90 oraindik erabil daitekeela, eta ikerketa-rako eta hedapenerako ahalmen handia duela.

**Zer eskatzen diozu iritzi publikoari?**

Gogoeta apur bat, ez dut gehiago nahi... nire irudia eta etorkizuna asko kaltetu dira, nire lan-taldea langabezia dago... zoritxa-rreretzabaida hau ez da beltza eta zuriaren artekoa, eta pertsona zehatz batzuk zalan-tzan jarri dira, baita ondarea eta lanbidea ere... Akaso, baten batek esan duen moduan, piezak ezkutatu behar nituen? Zoritxarrez jarduteko modu hori ez dator bat nire etika profesionala eta gizatiarrare-kin●

**“akaso, baten batek esan duen moduan, piezak ezkutatu behar nituen? zoritxarrez jarduteko modu hori ez dator bat nire etika profesionala eta gizatiarrarekin**

**BETAURREKO GRADUATUAK: 77,00 €**  
**kristalak barne**

**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTI OPTICAS**

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48

Olagibel, 33 t. 945 25 40 84

GASTEIZ



Eskaintzak 2009-02-28ra arte balio du



## KAUTA: HEGALDI BETEAN

KAUTA TALDEAK "ISLADAK" IZENEKO HIRUGARREN DISKOA ARGITARATU ZUEN JOAN DEN URTE BUKAERAN. HAIN JUSTU, ANDOAINGO TALDEAREN HIRUGARREN LAN HAU IZAN IZAN ZEN DURANGOKO AZOKAKO DISKO SALDUENETAKO BAT, ETA EGIA ESAN, EZ DA HARRITZEKOA, EZ BAITU EZER FALTAN: DOINU POTENTEAK, ERRITMO BIZIAK... URTARRILEKO GAZTEZULO ALDIZKARIAK KAUTA TALDEKO ADRIAN ELUSTONDO BAXUJOLEARI EGINDAKO ELKARRIZKETA MAMITSUA DAKAR: TALDEA ZERTAN DEN JAKITEKO, EUREN ISLADAK BERTATIK BERTARA GOZATZEKO... KAUTA HEGALDI BETEAN.

# 2009KO AGENDA DIGITALA, JAITSI ZURE ORDENAGAILURA!

GABONETAKO OPARI POLITA DA HONAKOA: GAZTEZULOREN 2009KO AGENDA DIGITALA. SAR ZAITEZ GAZTEZULO.COM ORRIALDEAN, ETA JAITSI EZAZU AGENDA DIGITALA ZURE ORDENAGAILURA. DI-DA BATEAN ETA ETA DOHAINIK. BA AL DAGO GEHIAGO ESKATZERIK?



**gaztezulo 2009**  
MI ETA NIRE MUNDUAK

abenduak 22 asteartea

35	af	32	06	01	18	12
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

● libete  
 ● libehera  
 ● liberrri  
 ● litoria

Jai egunak  
 H Hego Euskal Herrian  
 N Nafarroan


Eguna aukeratu      Oharrak idatzi



## MUSUKA NAZAZU

Torloju musuak, xurgatzaileak, hortzez hortzekoak, sakonak, estuak, gozoak, pasioz betetakoak, bibotedunak, otso gizon musuak... Musu mota asko dago eta musukatzeak, gauza guztek bezala (...)

[www.gaztezulo.com](http://www.gaztezulo.com)



gizonezko atxilotu zituzten 2008ko urtariletik urrira bitartean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Horixe da genero indarkeriak iaz Euskal Herrian utzi zigun datu lazarrietako bat. 923 emakumek erasoak jasan zituzten EAEn, hau da, 2007an baino 101 gehiago. %12ko igoera onartezina da. Salaketak %7 ugaritu ziren, 2.641etik 2.834ra. Kaltetutako emakumeen %52k 23-40 urte arteko adina du eta, horietatik %77, EAEkoak, Estatu Espainiarrekoak edo Europako Batasunekoak dira. Denbora tarte berean, bi emakume hil ziren tratu txarren ondorioz, 2007an bezainbeste. Begibistakoa da: lan handia dago egiteke tratu txarrak behin betirako desagertzea.



## KONSPIRAZIO DOINUAK BILBON

The (International) Noise Conspiracyk iazko abuztuan Bilbon eskainitako saioa galdu genuenok, ezinbesteko hitzordua genuen abenduaren 13an. Bigarren aukera. 22:00: Bilboko Kafe Antzokia jendez lepo. Bost lagunek oholntza hartu dute, eta Armed Love disko abesti batekin piztu dute metxa. Konspirazio doinuen artean, gauak eztanda egin du. Mezua argia da: rock and Rolla, musika estiloa ez ezik, eskaintzen diguten ongizatearen kartzelako ateak botatzeko tresna bat gehiago izan daiteke, izan behar du. Bizi dugun errealitateari erreparatuta... ez dago zalantzarik. Argazki gehiago: [www.gaztezulo.com](http://www.gaztezulo.com).

# Iruña Oka: Arkeologia eta

Arabako Foru Aldundiak Iruña Okako indusketez arduratzen zen Lurmen enpresari lana egiteko baimena kendu dio, Eliseo Gil eta bere taldea publikoki gezurtizat hartu ditu eta mediatikoki sekula konpondu ezingo den irudia sortarazi du. Eta hori guztia egiteko, gaur egun, ez dakigu funtsezko arrazoirik egon den ala ez, zalantza izugarriak daudelako:

**k:**

## Kultura

Aginalde Elkarteak eta Euskararen Jatorriaren Elkarteak Iruña Veleiako gertakizunen inguruan ikerketa serio eta sakona abian jar dadin aldarrikatu zuten atzo. «Frogarik gabe

eginiko salaketa» bazter utzi eta Eliseo Gilen arkeologo taldeak azartategian lanean jarrai dezala eskatu zuten, txostenek azaldutako arrazoei zentzurik ez dutela argudiatuta.

### Iruña Veleia auzian ziurtasun eza dagoela salatzekeo manifestua abian

22 ARTEZANAL | ARTEZANAL | DURANGO

Iruña Veleiako aurkituntzak faltsuak izan daitezkeela salatu den prozesu osoa indusketen bidez egon dela, egun zalantza dardara eta faltsuak edo egiazkoak direla esateko ziurtasunik ez dagoela aldarrikatu zuten atzo Arteza Zabala Aginalde Elkarteak, eta Foru Aldundi Euskararen Jatorriaren Elkarteak. Haien ikuspegia da, azartategian zuten Durango Auziaren baitan, eta hainbat datuaren artean manifestu bat zabaltzeko asmoa erakutsi dute, ahal bezainbat erakimendu bidez abiatzeko.

Prozesua bera gorabeheraz berriz egon dela alatu zuten, besteak beste, epia eman ondoren Eliseo Gilen lan taldeari hainbat eragineko epea eman baitzuten alegazioak egiteko, eta haien ustez, ezabala hartu ondoren alegazioak egiteko aukera izan beharko litzateke. Egun, gero Fiskaltzaen esku dago Arabako Foru Aldundiak salaketa izini ostean. Aipatzen dituzten ondorioak Adituen Batzordeak eragartzen dituenak dira, betan



Alabak eta Zabalak Iruña Veleia osoko indusketen salaketa ostean Durangoan. © 2008-2011 ARTEZANAL

Eliseo Gilen ere parte hartzen zuten. Gilen hainbatetan salatu du berak egindako txostenak ez zirela kontuan hartu.

Alabak eta Zabalak, bestealde, «linterxamendu mediaticoa buruko» alegazioak ez dutela ezertarako balio izango ere alatu zuten. Filtrazio ugari izan direla salatu eta azkenik batzordeak kide den Joaquín Gorrotxategi bere hitza berriz ez izana leporatu zioten. Horrela, Alabak ondorengo galdere bota zuten. «Nola

nahi dute txostenaren edukia sinestea horrelako jokamoldea izan eta gero?».

Bestealde, lotsagarritasun izan Alabak eta Zabalak, bestealde, «linterxamendu mediaticoa buruko» alegazioak ez dutela ezertarako balio izango ere alatu zuten. Filtrazio ugari izan direla salatu eta azkenik batzordeak kide den Joaquín Gorrotxategi bere hitza berriz ez izana leporatu zioten. Horrela, Alabak ondorengo galdere bota zuten. «Nola

esaperian, ez da onargarria» langilekin harremanik ez izate, «entzietan sakon bat eginez gero derriogorrekoa baita» prozedura bati.

Txostenean agertzen diren hainbat gauzari buruz ere zalantza argituak daude eta ustea da Eliseo Gilen erregulazioak zuzen izan diren.

Elkarteak kideak, beraz, Alabak eta Zabalak, bestealde, «linterxamendu mediaticoa buruko» alegazioak ez dutela ezertarako balio izango ere alatu zuten. Filtrazio ugari izan direla salatu eta azkenik batzordeak kide den Joaquín Gorrotxategi bere hitza berriz ez izana leporatu zioten. Horrela, Alabak ondorengo galdere bota zuten. «Nola

esaperian, ez da onargarria» langilekin harremanik ez izate, «entzietan sakon bat eginez gero derriogorrekoa baita» prozedura bati.

#### a) Datazioak ez dira berriz egin

Orain arte, laboratorio hauek egindako datazioen arabera ostrakak orain 1700 urte inguru egindakoak dira: Geochron (Cambridge-Massachussets), Gröningen Unibertsitatea (Holanda), CEA-CNRS (Frantzia) eta Adirondack (Euskal Herria). Laboratorio horiek lana gaizki egin badute, ez daude bakarrik zalantzan Iruña Okako ostrakak, laboratorio horiek azken urteotan egin dituzten beste datazio guztiak ere gaizki egongo lirateke. Zer iritzi dute laboratorio horiek kontu hauei buruz? Eskatu al zaie aurretik egindako datazioen txostenak berrestea? Batzordean euren iritzia ematea eskatu al zaie?

#### b) Indusketak ez dira bisitatu

Aldundiko Batzordeko kideak ez dira Iruña Okara joan gauzak ondo aztertzerako: ostrakak zein leku zehaztuta aurkitu diren, kokapenak, estratoak... Normala al da egindako indusketak ikustera ez joatea, lan hori sakonki aztertu nahi baldin bada?

#### c) Harremanik ez da egon batzordekide eta arkeologoen artean

Batzordeko kideak ez dira 10 arkeologoen egon, gauzak ondo aztertzerako: egindako lan arkeologikoa, jarraitutako prozedurak, etab. Txostena irakurrita eman dute euren irizpidea. Ez al zen ezinbestekoa langile horiei guztiei galdetzea haien lanari buruzko emaitza bat eman baino lehen?

#### d) Alegazioak egiteko epea epaiaren ostean jarri dute

Prozesu serio batean, indusketak bisitatzeaz gain, arkeologoak elkarrizketatzeaz gain eta datazioak berriro egiteaz edo berrestez gain, azken txostenak denon esku jarriko ziren berriro, azken erabakia hartu baino lehen, Eliseo Gilen erantzuteko aukera izateko. Kasu honetan ez da horrela egin eta epaia eman ondoren (kaleratzea eta lan-gabeziara) alegazioak emateko epea jarri dute. Eliseok aurkeztuko dituen alegazioek, linterxamendu mediaticoa honen ostean, zerbaiterako balioko al dute orain?

# Zientziaren aldeko adierazpena

## e) Filtrazio asko egon da eta isilpekotasuna hautsi dute

Jendeari informazio guztia bi urtez ukatu zaion bitartean, azken aste hauetan lau filtrazio baino gehiago egon dira gai honen inguruan, iritzi publikoa "moldatzen" laguntzeko. Horrez gain, batzordekide batek bere hitza ez du bete, isilpekotasuna hautsiz. Honelako portaerak onargarria al da honelako prozesu batean?

## f) Txostenei buruz esandako eta argitaratutakoa

Gaurko egunez txosten batzuk Interneten eskegitzen hasi dira. Horietako bat kimikaria den batzordekidea-rena da. Aldundiko agerpen publikoan ostraketan kola aztarnak agertzea faltsuak direla esateko erabili zuen. Txosten hori irakurri berri dugu eta ez dago kolari buruzko aipamenik. Txostenak aldatu al dira agerpen publikotik orain argitaratzen hasi diren arte?

## g) Faltsifikazioak egiazkotzat hartzeko egiten dira normalean

Arkeologian, artean edo bestelako jardueretan, faltsifikazioak egiazkotzat har daitezten egiten dira. Beraz, zentzurik ba al dauka iruzur egile batentzat hainbeste hitz, horietako asko gazteleraz eta banaka batzuk ita-lieraz eta irlanderez idazteak ostraketan?

Zalantza horien guztien aurrean, honako eskaera hau egiten diogu Arabako Foru Aldundiari:

- 1.- **Idazkunen datazioak berriro egitea beste laboratoriorik batzuetan.** Horrez gain, aurreko datazioak egin dituzten laboratoriorik egindako lana berrestea ala ez eskatzea eta egindako datazioei buruzko datuak osatzea.
- 2.- **Lurmen enpresarekin duen hitzarmena jarraitzea.** Ostrakak gezurrezkoak izateko aukera handiak badaudela onartuta ere, egiazkoak ere izateko arrazoiak ez dira falta: laboratoriorik datazioak, topatu diren lekua (estratoak), gazteleraren sorrerari buruzko bestelako teoriak, etab. Beraz, Aldundiak beste zuzendaritza bat sar dezake Iruña Okan baina Lurmenekin batera lan egiteko.
- 3.- **Informazio eta eztabaida epe luze bat irekitzea.** Bi urteko epean eta material guztia interneten bidez denon esku jarri ondoren, aurkitutako hitz eta ostrakak egiazkoak izan daitezten nazioarte mailako eztabaida publiko eta irekia sustatzea. Lehendabizi, maila arkeologikoan atera beharko liriteke ondorioak eta, bigarren maila batean, gai honi dagozkion gainerako jakintza arloak●

Euskal Herrian, 2008ko abenduaren 6an

# Iruña Oka: datazioak berriro egin gabe, nola esan faltsuak direla?

Iruña Okako idazkunak faltsuak direla erabaki berri du batzorde zientifikoak. Hedabideetan agertutakoa eta Eliseo Gilen prentsaurrekoa ikusita (ikus Youtuben), lehen genituen baino zalantza gehiago ditugu orain.

patxi alaña\*

## a) Datazioak ez dira berriro egin

Lehenbizi, harrigarria da datazioak berriro egin ez izana. Eliseo Gilek prentsaurrekoan aipatu zuen Batzordearen 2. bileran 100 pieza berriro datatzeko eskatu zuela baina ez zela onartu. Mundu osoan idazkunak datatzeko teknikak oso garatuta daude. Prozedura homologatuak dira eta hainbat laborategitan egiten dituzte frogak horiek. Orain arte, laborategi hauek egindako datazioen arabera ostrakak egiazkoak dira: Geochron (Cambridge-Massachussets), Gröningen Unibertsitatean (Holanda), CEA-CNRS (Frantzia) eta Adirondack (Euskal Herria).

Beraz, faltsuak direla baieztatzeko, gutxienez hori esango luketen beste 2-3 laborategik egindako analisi espektroskopikoak jarri beharko ziren mahai gainean. Horiez gain, lehen ez zen probaren bat egin pieza suntsitu behar delako baina, baten bat suntsitu behar bada ere, berriro egin behar ziren datazioak. Iruditzen zaigu XXI. mendean badaudela teknikak frogatzeko idazkunak noiz egin diren.

## b) Komunikaziorik ez eta Iruña Oka bisitatu gabe

Batzordeko taldekideen arteko inkomunikazioa ere, nahiz eta bost bilera egin diren, sinestezina da. Hau da, talde batek egindako lana baloratzeko, ezinbestekoa da haiekin egotea, galdetzea, etab. Eliseok emandako txostenean baino ez dira oinarritu. Paperaz gain, harreman zuzenean mila gaia gehiago ere ikusten dira. Batzordekideak munduaren beste puntan biziko balira ulertuko genuen baina ez elka-

rreren ondo ondoan egonda. Hori dela eta, kolaren moduko polemika entzutea izugarria da. Madariagak zuzenean galdetu izan balio Eliseori, honek azalduko zion zergatik egon daitekeen kola piezetan. Baina ez diete ezer galdetu zuzenean nahiz eta ia urtebete pasatu den. Eta, idazkunak faltsuak direla oinarritzeko txosten batean piezetan kola agertu dela jasotzea eta komunikabideetan hainbeste oihartzuna izatea negargarria izan da eta sinesgarritasuna galtzen du.

Eliseok aipatu zuen hirugarren puntua ere harrigarria da: batzordekideak ez dira Iruña Okara joan. Ez dute egindako indusketa *in situ* aztertu. Hizkuntzalariak ez joatea ulergarriagoa izan zitekeen baina arkeologoak ez joatea...

## c) Faltsuak direla esateko aurkeztutako probak

Baina ikus ditzagun faltsuak direla esateko hedabideek zabaldu dituzten oinarriak. Julio Nuñez arkeologoak indusketako prozedurak desegokiak izan direla esan du. Baina horri erantzunez, Eliseok Angel Morillo Cerdan, Emilio Illarregi eta Carmen Fernandez Ochoa arkeologoen ontzat eman dutela esan du. Hau da, nori sinetsi? Batzorde zientifikoaren ebazpena sinesmen kontua al da?

Juan Santos Yanguas Historia Katedradunak pieza batzuen ondoko zatietan testuaren jarraipenik ez dagoela esan du. Eta gure galdera zera da, apurtutako zeramika zatietan idazten bazuten, horiek aprobetxatzeko, ez zegoen aukerarik guztietan ez idazteko? Duela bi urte Santosoren sinadurak bermatu zituen ostrakak Henrike Knörr eta Eliseo Gilekin batera.

Akats ortografiko eta sintaktiko asko dagoela ere azpimarratu du faltsutasuna frogatzeko. Hauxe izan da, kolarekin batera, xaloena. Juanek ez al daki garai hartan, gaur egungo ikastetxeetan bezala, idazten ikasten ari diren ikasleek akats asko egiten dutela? Ez al daki bi hizkuntzetan ikasiz gero, gutxiago menperatzen duzun hizkuntzan akats sintaktikoak egiteko joera handia dela? Unibertsitatean helden direnek ere batzutan akatsak egiten badituzte, zelan ez txikiagoak direnean?

Gezi bat egitea, marra bikoitzarekin ere ezinezkoa dela garai horretan azpimarratu du. Nola jakin liteke hori? Descartesena ere aipatu dute baina Eliseok "Miscart" irakurtzen du. Zergatik ez dute argazkia argitaratzen? Ez al dakigu irakurtzen? Ematen du iritzi eta sinesmen munduan gaudela, ez frogetan.

## d) Hipotesi bat: gaztelera latina bezain zaharra da

Joakin Gorrotxegi eta Joseba Lakarrak, besteak beste, agertutako euskarak antza gehiegi duela gaurko euskararekin aipatu dute frogak gisa. Italiarazko "cuore" berba agertzen dela, latinezko "cor-cordis"en orde. Gaztelarazko "no" hitza, "non"aren orde. Izen batzuk gaztelaratik errazago ezagutzen direla, latinetik baino. Argudio guzti horien inguruan, gaur egun beste teoria bat dagoela esan beharra dago. Horren arabera, agertutako berbak egiazkoak izan litezke.

Aitzinean beste ikerle batzuek esan dute, eta gaur egun ere bai: Arnaiz, Ribero Meneses: gaztelera ez dator latinetik, ezta beste hizkuntza erromaniko guztiak ere. *El fraude de la cuna riojana del castellano* Riberoren liburuan esaterako, azalpen hauek ematen ditu: erromatarrak penintsu-



## duela 1.700 urteko benetako ostraka euskaldun batek bakarrik aldatuko luke euskararen historia. Iruña Okan berrehun baino gehiago omen daude



lara etorri zirenean armada izugarria ekarri zuten. Ez zen ia borrokarik egon, Numantzian eta "Iparraldean" izan ezik. Paseo bat izan zen haientzat. Garai hartan penintsulako biztanleria Italiakoa bezainbestekoa zen. Eta ez zegoen ez telebistarik, eskolarizazio unibertsalik, administrazio indartsurik... Gainera, etorri ziren soldatuen % 90 ez zen Italiakoa, beste herrialdeetakoak baizik. Latina ei zekien hain jende gutxi ekarrita eta hain baliabide gutxirekin, nola aldaraziko zieten hizkuntza besteei?

Ribero Menesesek dioenez, musulmanak 700 urtez egon baziren eta erromatarrek 400, eta denbora horretan latina ikasi bagenuen, nola ez genuen bada arabiera ikasiko ia denbora bikoitzean? Bere iritziz, italierak latinaren antza askoz handiagoa eduki beharko zuen, esaten duten bezala gertatu izan balitz. Gainera, hizkuntza erromaniko guztien sintaxia aztertuta, ikaragarria da, denek latinaren alderantzizko sistema dute. Hau da, latinak, euskarak bezala, kasu gehienetan deklinazioa hitzari lotuta dauka: "*vobiscum-zuekin*". Baina hizkuntza erromanikoetan beti aurretik doa: "*con vosotros, avec vous...*". Honek zer pentsaturik eman beharko liguke, sintaxia hizkuntza baten muina delako eta, denek aldatzea ez delako normala.

Ribero Menesesek 1.100 urte baino gehiago duten gaztelaraz idatzitako idazkunak aipatzen ditu bere liburuan eta, gehiago ez egotearen arrazoia, Eliza Katolikoak kulturaren monopolioa orain gutxi arte edukitzea izan daitekeela aipatzen du. Bere iritziz gaztelera eta gainerako hizkuntza erromanikoak latina baino edo bezainbeste zaharragoak izan daitezke. Irlandan agertzen diren gaztelarazko hitz batzuk ere horren froga direla dio, erromatarrek hara ez zirelako heldu. Erljioaz ere, kristautasuna ez zela Erromatik etorri penintsulara esan izan du. Iruña Okako ostrakek bere teoriak baieztatu litzukete, egiazkoak izanez gero.

Bestetik, Inperio Erromatarrek Ekialdean beste 1.000 urte gehiago iraun zuela gogo-

ratu beharra dago, 400etik 1.453 arte. Eta, Bizantzion latinaren ordezkera grekera klasikoa hartu bazuten ere, grekera ez zen Turkiara, Egiptora, Libanora... zabaldu. Hau da, botere politikoan 1.000 urteko jarraipenak ez du derrigor herri baten hizkuntza aldarazi behar.

### e) Mitxelenaren teoria frogatzeko dago

Baina gehiago ere badago. Lakarra eta Gorrotxategi, idazkuntan agertutako euskarazko hitzak ezin direla izan esateko, Mitxelenaren teorian oinarritu dira. Mitxelenak, 1.400 urte arte idatzitako euskarazko testu bat ere eduki gabe (Akitaniako hilarrien pertsonen izen batzuk eta Donemiliagako bi esaldiak kenduta) garatu zuen bere teoria osoa, gaur egun Euskal Filologian irakasten dena. Baina orain arte teoria honek ez du proba bat ere pasatu, 0-1.400 urteetako hitz bat ere ez delako agertu. Beraz, frogatu gabe dagoen teoria batean, horren kontra egon litezkeen hitzak faltsuak direla baieztatzeke oinarritu daiteke? Hain kategorikoki baieztatu daiteke?

Beraz, faltsuak direla esateko arrazoi asko badagoela onartuta ere, badira kontra esaten duten hainbat froga eta teoriak ere.

### f) Zertarako faltsifikatu?

Normalean gauzak faltsifikatzen direnean egiazkotzat har daitezkeen egiten da. Horrela gertatu izan balitz gaztelarazko berbak, irlandarazkoak edo italierazkoak ez lirateke jarriko, latinezkoak eta euskarazkoak (garrantzia berezia emateko) baino ez ziren jarriko. Ez dauka zentzu handirik...

### g) Iragarritako heriotza baten kronika edo nola ez egin gauzak

Baina Batzordearen lana benetan ilundu da filtraioengatik eta hitza ez betetzeaga-

tik. Gorrotxategi izan da publikoki isilekotasuna apurtu duena. Eta berak zehapena jaso beharrean, Eliseoren taldea zigortu behar dela publikoki esaten ari da bera! Eta orain bi aste filrazio bat egon zen, gaia batez ere ikuspuntu filologikotik erabakiko zela esaten zuena. Eta Batzordeak bere iritzia eman baino bi egun lehenago, beste filrazio bat, eta egun berean, goizean, irrti guztietan berriz. Batzordekide batek edo batzuek hori egin badute, zelan nahi dute euren azterketetan sinestea.

Eliseo Gilen lanaren epaiketa bat izan da baina, epaiketa errepikatu beharko litzateke, oso txarto egin delako: eszenatokia ikusi gabe, lekukoak elkarrizketatu gabe eta azterketak balizko errudunei eman gabe. Nola eman daiteke ebazpena, hau da, faltsuak direla eta Lurmen enpresa kanporatu, Eliseok bere kontra dauden txostenak irakurtzeko astirik izan ez duenean? Kanporatu eta gero, orain, 10 egun eman diote alegazioak egiteko. Nazioarteko benetako batzorde zientifiko batek inoiz ez luke horrelakorik egingo eta gaur egun bizi dugun egoera amets gaizto bat besterik ez litzateke izango. Ezin da horrelakorik onartu.

Uste dugu XXI. mendean badaudela metodo zientifiko homologatuak frogatzeko idazkunak benetakoak ala gezurrezkoak diren. Duela 1.700 urteko benetako ostraka euskaldun batek bakarrik aldatuko luke euskararen historia. Iruña Okan berrehun baino gehiago omen daude. Henrike Knorr-ek zioen bezala, arkeologoei dagokie lehenengo, datazioak eta frogak ondo egitea, baina fase hau burutu gabe dago oraindik. Azkenik, ostraka guztiak ondo zaintzea espero dugu, etorkizunean egin beharko diren datazio eta azterketak ahalbidertzeko ●

\*euskara teknikaria eta euskararen jatorriaren biltzarreko kidea



## Iruña-Veleia, iruzurra edo historiako hutsune bat?

arantxa zabala\*

**H**arrituta, txundituta, izututa eta haserre bizi dut Eliseo Gil eta Iruña-Veleiako bere arkeologo taldeari buruz hedabide-ek hartu duten jarrera. Ezin dut ideia bat saihestu: Zein erraza den boteretik pertsona bat suntsitzea! Ezarritako Egia zalantzan jartzen duenari ateak ixtea zein merkea den ikusteak, haserre bizian jartzen nau. Etsigarria da ikustea analista, espezialista eta kazetarien izpiritu kritikoa zertan geratzen den: ke hutsa! Katedradun eta aditu ofizialen iritziak, zalantzan jarri gabe barneratu eta eurenak balira moduan plazaratzen dituzte. Ondorioz, iritzi publikoak tesi horiek barneratzen ditu eta denok galtzen dugu gizarteak aurrera egiteko aukera, garatze-koa.

Demokraziak, benetakoak, atzera egiten du, Ezarritako Egiaren eta aditu ofizialen interesen aldrean sakrifikatua. Inork ez ditzala nire pribilegioak ukitu!! Irainzeko eta profesional talde baten irudia lohitzeko ez dute ezer frogatu beharrik! Aditu ofizial horiek ez dakite aurkikuntza bat nola enkajatu ikasgeletan azaltzen dituzten eskematan. Eta euren ezgaitasuna ezkutatzan dute mezulariari errua botatz, zalantza izpia agertzen duenari. Zientziaren ibilbide korapilatsu guztian zehar maiz pasa da, pasatzen ari da, eta ikusten ari gara.

Ba al zenekien Kantabriako Altamira koba paleolitikoan aurkitutako labar-pinturen aurkitzailea, Santuola jauna, iruzurgile moduan hartu zela eta 50 urte itxaron behar izan zirela labar-pinturen egiazkotasuna aitortzeko? Historiaurreko beste koba bat aurkitua izan arte itxaron behar izan zuen, oraingoan lurralde frantsean.

Ba al zenekien Atapuercako arkeologo taldeak Sapiens-aren afrikar jatorriaren teoria baztertu duela eta nazioarteko zientzia komunitatearen aurrean jatorri euroasiatikoa babesteko konprometua hartua duela? (2007ko azaroan, Burgosko Paleoekologia Kongresuan). Sapiens-aren afrikar jatorria zalantzan jartzen dute, duela gutxi arte eztabaidaezina zena.

Aurrekari hauek kontuan izanik, bidezkoa da galdera batzuk bururatzea: Nork dauka galtzeko gehiago aurkikuntzak egiazkotasun jartzen badira? Edo beste modua batean esanda, nork dauka

irabazteko gehiago iruzurtzat hartzen badira? Zergatik Henrike Knörr euskaltzaina eta Euskal Filologia katedradunak, aurkitutako piezen baliozkotasuna baieztatzen zuen, behin eta berri? Zergatik adierazten du Lakarra jaunak, protoeuskararen oinarriak berrikusteko beharra dagoela? Aurkikuntzen iruzurra adierazteko elkarrizketa batean plazaratu zuen adierazpen hau Lakarra jaunak, Gorrotxategi jaunarekin batera. Zer aldatu da orain, oinarri horiek berrikusteko? Agian, Iruña-Veleian ikusi duen zerbaitek eragin du behar hori?

**“ zergatik adierazten du lakarra jaunak, protoeuskararen oinarriak berrikusteko beharra dagoela? aurkikuntzen iruzurra adierazteko elkarrizketa batean plazaratu zuen adierazpen hau lakarra jaunak, gorrotxategi jaunarekin batera. zer aldatu da orain, oinarri horiek berrikusteko? agian, iruñaveleian ikusi duen zerbaitek eragin du behar hori? ”**

Batzuetan neure buruari galdetzen diot ea, gai hauekiko orokorrean dagoen ezagutza falta kontuan izanik, ez ote garen gehiegizko onarpen bat ematen mugarik gabeko jakintza aitortzen diogun katedradunen esku uzten. Historia enigmaz, misterioz bete dago. Zergatik ez da horrela hartu Iruña-Veleian aurkitutakoa, arkeologo batzuen izena zikindu beharrean? Euskal herriaren eta bere hizkuntzaren jatorria ezezagunak izaten jarraitzen duten bitartean, ez al luke misterio honek lehentasuna hartu behar? Hobe al da 50 urte itxarotea, hain ezjakina den gure mundu honetatik urrun, beste aurkikuntza batek ezarritakoa dardarka jarri dezan? Hobe al da protoeuskararen oinarri berriek aurkikuntza hauek enkajetzea ahalbidetu dezaten itxarotea? Iruña-Veleia eta Atapuercak Aurrehistoria eta

Antzinako Historiaren interpretazio desberdin bati ateak irekitzea ekar lezake, baino hori gure aditu ofizialei eserlekua mugitzea bezala izango litzateke. Euren karguak, euren pribilegioak, arriskuan egongo liriteke! Nahiago dute “Descartes” hitza azpimarratu, nahiz eta arkeologoen zeinu horien beste irakurketa bat egitea proposatu duten. Nahiago dute gu kolaz, “iruzurraren” goreneko frogaz, hitz egiten aritzea, profesional batzuen lana karrikatura batekin parekatuz. Etsigarriena da, irratiko berriketaldietan, hedabideetako analistek “Descartes” eta kola azpimarratzen jarraitzen dutela, entzuleak benetan Veleian dagoenaren ezagutzatik alden- duz. Bi urte behar izan dituzte begi-bistakoak diren ondorioetara iristeko. Inork ez al du fede txarrik sumatzen horretan guztian? Gizakiok ez genuke inoiz zalantzaren onura alde batera utzi behar, ezta eztabaida zintzoa ere. Ezta Ezarritako Ezagutzaren zaindarien, Ofiziala denaren mugak zeharkatzen dituztenen aurka erasotzen dutenean ere ●

\*agiñalde kultur elkarteko idazkaria

# La XIII kalenda de november de MMVIII



jose ignacio vegas aramburu\*

**2**006ko uztailean, Iruña-Veleiako aurkikuntzen inguruan nik idatzitako artikulu bat agertu zen prentsan. Bat egiteaz gain, indusketan erabilitako metodoaren goraipamena egin nuen, hori baita iritzia eman nezakeen eta dezakedan arloa 30 urte baitaramatzat arkeologiaren munduan. Horrekin batera, baieztapen batzuk ere egin nituen, "sen onak" ez zidala onartzen uzten faltsifikazioaren ekintza fisikoa bera.

Orditik hona, 30 hilabete beranduago, hainbeste adierazpen, idazki, elkarrizketa eta, batez ere, jazoera egon dira, ezinezkoa egiten zaigula argitasunez ezer pentsatzea gertatu denaz eta gertatzen ari denaz Iruña-Veleian. 2008ko azaroaren 19tik gaiaren inguruan galdetzen didatenean, esaten dut nahastuta nagoela, zalantzati, triste, harrিতuta... hitz batean, galduta, orain arte nik bat egindako guztia kolokan geratzen baitzen.

"La XIII Kalenda de November de MMVIII" (ondo idatziko ote nuen *adituen* arabera?) Eliseo Gilen eta bere lan-taldearen bizitzan datarik tristeena eta dramatikoena izango da seguruenik. Egun horretan Foru Aldundiko funtzionario baten eskutik Foru Agindu bat jaso zuen aztarnategitik kaleratuta zegoeneko epaia jasoz, non 14 urte zeramatzan lanean. Handik minutu gutxira

hasi zen epaiketa sumarioa epaia beteta eta kondenatua presenten egon barik. Kultura Diputatuak urte hasieran osatutako itxuraz 26 laguneko batzordeko ordezkarietako batzuek, euren lanen eta ondorioen laburpenak azaldu zituzten, ahoz eta agerkari infor-matikoren batzuk erakutsiz, grafitoak faltsuak zirela erabakitze-ko balio izan zutenak. Honekin batera, ez legoke soberan Giza Eskubideen Deklarazio Unibersalaren 10. artikuluari begiratu bat ematea.

**“  
kontua fiskalaren eskuetan dago eta inguruko irregulartasun guztiak, jokabide bidegabeak, intentzio txarreko adierazpenak, eta abar ikusita, izango al da hau egiaren zer edo zer jakiteko modu bakarra?”**

Txostenetatik zabaldu denak ezinezkotasunei buruzko baieztapenak egitera eraman dezake bat baino gehiago, eta beste batzuk, Eliseo Gilek adierazi legez, eztabaidagarriak diren interpretazioak erabiltzen ari direla esatera, eta ez frogak. 26 aditu horien informeak guztiz arrotzak zaizkit eta sekula ezagutuko ez ditudan susmoa dut, gutxienez modu ofizial batetik. Kontua fiskalaren eskuetan dago eta inguruko irregulartasun guztiak, jokabide bidegabeak, intentzio txarreko adierazpenak, eta abar ikusita, izango al da hau egiaren zer edo zer jakiteko modu bakarra?

Nola konponduko da metodo arkeologikoaren desitxuratzea, judizializatu eta politizatu, izaera zientifikotik atera eta espektakulu publiko bilakatu dutenean?●

\*arkeologoa

**EGUR**

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pob.  
Goian Industrialdea  
TI/fxa: 945 465 921  
TI. 627 417 747  
info@egur.es  
www.egur.es  
01171 Legutiano (Araba)

**eusko  
alkartasuna**

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea

**Gazte  
Abertzaleak**

[www.gazteabertzaleak.org](http://www.gazteabertzaleak.org)  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

## IRUÑAKO EZKILA

ramon loza\*

**E**z da erraza jakitea nork eta noiz pentsatu zuen toki hark bazuela zerbait berezia, bazela toki garrantzitsua bat, hau da, hiri bat. Eta galdetzean, Iruña zela erantzuten zuen. Erantzuten zuen hark ez zituen berarekin argudio guztiak, baina lurra lantzen hastean, zerbait bazela jabetzen zen. Behin baino gehiagotan lokartu zen urrezko kanpaia topatuko zuen itxaropenaz, handik gertu gorde-ta zegoela esaten baitzuten.

1975ean, arkeologia lanekin hastekotan ginela, kordelekin lurra mugatzen ari ginela, inguruko herritar bat hurbildu zitzaigun zera esanez: "zuek badakit zertara zatozten, kanpaia topatzerá".

Azken urteetan interes handia egon da Iruña leku garrantzitsua zela adierazteko, bitartean inork ez zuenean horretaz zalantzarik egiten. Inguruko herritarrek ere bazekiten zer zen denetarikoa arrastoak bertan aurkitzea, kanpaia izan ezik denetarikoa.

Kanpaia euren begi aurrean zuten, betidanik izan dute bere doinua, betidanik izan dugu bere doinua presente.

Ez dago Arabako historian barna ibiltzerik, Iruñako kanpaiaren doinua entzun barik.

Erromatar inperioko bide sareetan entzun zen aurrengo aldiz *Veleia*, *Ab Asturica Burdigalam* izeneko gal-

tzadan. Gauzak txarto jarri zirenean, bertan *Cohors* bat ezarri zenaren zurrumurrua *limeseko* mugara arte entzun ziren. Geroago, Goi Erdi Aroan, Albaro *episcopusak veleiense* hitza zerabilen bere titulua izendatzeko. Gerora emandako *mandaturen* batekin zerikusia izan zezakeen zerbait akaso, sanjuanista behinik behin?

Historiagileek bazekiten, gutxienez XVI. mendetik, Iruñan arrasto erromatar garrantzitsuak zeudela. Gerora inork ez zuen Iruñiaren oihartzuna apaldu, kontrakoa baizik. Ez XVIII. mendeko ilustratuek, Prestamero eta abarren gabinetek. Ez XIX. mendeko kuxkuxeroek, Baraibarren lagunek eta bestek.

Hauts asko harrotu dituzte Iruñan delako ezkila topatzen; 1885 inguru horretan, Arabako Monumentuen Komisioak, XX. mende hasieran Jaime Verastegui apaiz ilustreak, 1949 eta 1954an Gratiniano Nietok, 1975ean Juan Carlos Elorzak eta 1994tik Eliseo Gilek.

Zantzu guztien arabera, oraindik duela gutxi arte, bazi-rudien azken hau zela kanpaia topatu zuena. Deskribatzeko adjektibo nahikorik ez zegoen grafito itxuran.

75ko udan Iruñako indusketak burutzen ari ginela, kobazulotxo bat topatu genuen Zadorra gaineko Arkizeko murrua mozten duen horman. Bertako bati eman nion aurkikuntzaren berri. Eta horrela esan zidan: "mairuen garaian, duela urte asko, artzain bat bere ahuntzaren bila

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

**QEU**

laguntzailea:

**GIZARTE EKINTZA**

**Obra Social**

**Caja Vital Vital Kutxa**

# a-veleia

sartu zen kobazulo horretara. Farolaren argi epelarekin emakume eder bat ikusi ahal izan zuen barruan, ileak urrezko orrazi batekin orrazten zituela. Zoru guztia urrezko gauzez betea zegoela ere ikusi ahal izan zuen. Ahal izandako gauza guztiak eskuratu zituen, alkandora artean sartuta eta osterantzekoa eskuetan eta emakumea gogaitu gabe alde egin zuen. Kanpoko argiarekin esku artean zuena hobeto begiztatu eta lurrezko ontziak zirela jabetu zen, esku artean desegiten zitzaizkion buztinezko ontziak”.

Kanpaien, urrezko lapikoen istorioak zoragarriak dira, gehiago oraindik Mari sartuz gero tarteko, baina hori baino gehiago ez dira, istorioak, kondairak, etxeko kontu zaharrrak.

Iruñan kanpaina topatzeko gogoia, kanpaikadak emateko gogoekin elkartu dira. Eta egia esan, ondo baino hobeto lortu da bigarrena.

Txundidura guztiak pasata, goiz zientifikoaren argitan dena bilakatu da buztin. Buztin egosia, Terra sigillatarena den modukoa. Non jarraituko duen grafitoak eta grafitoak agertzen, baina dagoeneko ez hain oihartzun handiz jotako “ezinezko” horiek bezalakoak.

Iruñako kanpaiaren azken hotsak zer, nola, zergatik eta nor izan den bere egilea jakinarazteko balio dezala espero izatea baino ez zaigu geratzen. Baina aldi berean, azaltzeko zergatik egon den arrapaladarako hainbeste presa kontu

horretan. Jendaurrean garrantzi handikotzat aurkeztu zen lehen egunetik foru agintariak delitu oihukatzeke edozein arrazoi eta eskubide zapaldu zuteneko azken egunera, prozesu judizialerako -egonez gero- oinarritzko frogak aurrekusi gabe. Gauza bat dela arrazoia izatea, eta oso bestelakoa, arrazoiak, dilin-dalan aritzeko ●

\*arkeologoa eta historiagilea




“  
**Iruñako kanpaiaren azken hotsak zer, nola, zergatik eta nor izan den bere egilea jakinarazteko balio dezala espero izatea baino ez zaigu geratzen. Baina aldi berean, azaltzeko zergatik egon den arrapaladarako hainbeste presa kontu horretan**

## Iturrieta



**bertako sagardoa**



**OSTEGUNETIK HURRERA IREKITA.**  
Salnontzeko egunak, enkarguz.

## Sagardotegia



**ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593**

## ILUNA-VELEIA

xabi otsoa de alda\*

**J**akin-min handia sortzen dit Iruña-Veleiako aztarnategian faltsifikazioak zergatik egin diren jakiteak, azkenean horrela izan dela egiaztatzen bada behintzat. Galdera ona dela uste dut, batez ere, arazoa fiskaltzaren eskuetan dagoen une honetan. Bada beste puntu garrantzitsu bat: egoera zergatik bideratu den bideratu den moduan.

Nire ustez, bi aukera daude Eliseori eta haren taldeari dagokionez: burutik jota daude eta zirku hau guztia antolatu dute, edota erantzukizunak beste nonbait daude.

Horri buruzko gogoeta xume bat; ikus ditzagun eragingarri posibleak.

Ospea eta proiektuari babes handiagoa ematea Eliseoren aldetik. Litekeena da, baina funts gutxi du, grafitoen ezaugarri nagusia bitxitasuna eta azalpen ortodoxoa emateko zailtasuna baita. Beraz, hark edota haren taldeak egin izan balituzte, ez zuten aukera hori egingo. Horri buruzko informazio iturri nahikoa dago edonoren eskura, guztia modu xume eta sineskorragoan eta, aldi berean, modu ikusgarri eta erakargarriagoan egiteko.



“**ustezko esku beltz horren eragingarrien artean, eliseoren taldea proiektutik kanpo uztea legoke argi eta garbi, eta jakina, veleiako bertako biztanleen euskalduntzearen ideiak izango lukeen garrantzia kentzea eta euskalduntze berantiarraren teoria indartzea, batzuentzat kasik estatu gaia baita hori**”

Aukera hori baztertuta, nori begiratu behar diogu orain? Proiektua suntsitu nahi duenari, hain zuzen. Baina nola egingo dugu? Ezinezkoa da grabatu guztiak Eliseo

konturatu gabe egitea. Badago modu errazago bat. Imajina dezagun grabatu horietako batzuk egiazkoak direla, nahiz eta testuingururik gabekoak diruditen eta interpretazio zaila duten. Leku bateko ezaugarri bereziek batzuetan ezustekoak ematen dizkigute, eta batzordeko adituek duten aparteko gaitasun teknikoa zalantzan jartzen ez dudana arren, kontuan izan behar dugu hasiera batean zuzenak ziren teoriak, sarritan, denborarekin aldatu egin izan direla. Horrexegatik izan du eskura aukera hori, hain zuzen, hori egin duenak, horrela egin badu, behinik behin; lehenengo unetik sortu den mesfidantza ikusita, nahikoa zen ezinezkoak ziren “pozoiutako” pieza kopuru on bat sartzea, baita gertaera ezagutu aurretik ere, eta guztia baliogabetuta geldituko zen edonoren aurrean. Dudan informazioa kontuan hartuta, hori guztia egin ahal izan da.

Ustezko esku beltz horren eragingarrien artean, Eliseoren taldea proiektutik kanpo uztea legoke argi eta garbi, eta jakina, Veleiako bertako biztanleen euskalduntzearen ideiak izango lukeen garrantzia kentzea eta euskalduntze berantiarraren teoria indartzea, batzuentzat kasik Estatu gaia baita hori.

Laburbilduz, pieza horietako asko faltsuak ez izatea izan daiteke, eta faltsuak badira, baliteke indusketako lan taldearen erantzukizuna ez izatea. Horri guztiari buruzko gogoeta bat egin behar dela iruditzen zait; eta gauzak egin diren modua, berriz, presazkoa, neurritik kanpokoa, desgokia eta bidegabea izan da.

Esan beharra daukat nire zalantzak gero eta handiagoak direla, adituen beraien kontraesanak, ezezkoak eta horren serioak ez diren azalpenak ezagutzen noan heinean: itsasgarriaren gaia, indusketa guztietan erabili izan dena, Descartes hitzaren garbitasun eskasa, hasiera batean esleitu zitzaie

**ez dakigu zein izango zen antzinako iruña-veleia**ko biztanleen errealitatea, baina arazo zailei irtenbide zailak aurkitu behar zaizkie; bilatu egin behar dira; kontrakoa gure adimena gutxies-  
tea litzateke; eta ondoren, egia nagusitu dadila****

denbora epearekin bat datozen hitz askoren izangarritasuna egiaztatzea batzuen aldetik, antzinakoak diren edo ez jakiteko aukera emango luketen grafito batzuk datatu nahi ez izatea, hondakin gehiago egon daitekeen lekuetan begiraleen aurrean indusketak egin nahi ez izatea, faltsutasunari buruzko txosten kimikoak inolaz ere frogatzat hartu ez dituzten egiaztatutako iritzi teknikoak egotea, orokorrean indusketa lanak ongi egin direla uste duten adituak egotea, etab.

Beraz, zergatik jokatu den jokatu den bezala galdetzea besterik ez zait gelditzen, taldea baztertuz, beren ondorioak azaltzeko aukerarik eman gabe, eta batzordearen lana modu dotoreago eta egokiago batean amaitu gabe; izan ere, zalantzak oso handiak izan badaitezke ere, txostenek iritziak finkatzen baitituzte, errespetagarriak, baina ez dituztenak faltsifikazioak egiaztatzen. Prozesua luzea dela iruditzen zaigun arren, gaiaren inguruan antsietate handia sortu dela iruditzen zait, eta horrelako arazoen analisi eta azterketa gehiago behar izaten dituzte, erabaki zorrotzak hartu aurretik.

Nire iritzi, interes pilo batek bideratu gaitu gauden lekura: aurkikuntzen egiantzik ezari buruz teknikari batzuek ateratako ondorioek batez ere, baina baita jada sendotuta dauden teoria filologikoak aldatu beharra saihesteak ere, beste profesional batzuen kritiken izuak, aztarnategi eder horren kontrola bereganatzeko EHUko arkeologo batzuek duten interesak, akademikoak soilik izan behar duten gaien inguruan sortu ahal izan diren presio politikoak, iruzur posible baten aurrean zorrotz jokatu ez izanak haiengan izan ditzaketen ondorioen aurrean Aldundiko arduradunek izan duten bertigoak; eta hori guztia, hauteskundeak gertu direla alde batera utzita.

XVII. mendearen hasieran Araban prozesu inkisitorialek izan zuten garrantziari buruz berriki osatu dugun ikerlan batek, zeinetan kontserbaturiko Arabako Lautadako eta

Mendialdeko hamaika emakumeren aitortpe-  
nek, beren adierazpenak ulertu ahal izateko euskarazko interprete baten beharra izan zuten, gaur egungotik bestelakoa den errealitate linguistikoa erakusten digu. Ez dakigu zein izango zen antzinako Iruña-Veleiako biztanleen errealitatea, baina arazo zailei irtenbide zailak aurkitu behar zaizkie; bilatu egin behar dira; kontrakoa gure adimena gutxiesten litzateke; eta ondoren, egia nagusitu dadila.

**“  
pieza horietako asko faltsuak ez izatea izan daiteke, eta faltsuak badira, baliteke indusketako lan taldearen erantzukizuna ez izatea. horri guztiari buruzko gogoe-  
ta bat egin behar dela iruditzen zait; eta gauzak egin diren modua, berriz, presazkoa, neurri-  
tik kanpokoa, desagokoa eta bide-  
gabea izan da**

Aipatutako prozesu horietan hiru inkisidorek parte hartu zuten, eta horietako bik sumagarria zen edonor sutara eramanez nahi zuten. Hirugarrenari esker, Alonso de Salazarri esker, gehienak libratu ziren. *Affaire* honetan ere, beste Salazar baten beharra zegoela iruditzen zait.

Tresponten (Iruña) aurkitu zen ILLVNA izena zuen antzinako hilarria, orduan egindako irakurketaren arabera eta gaur egun desagertua dagoena. Horrela izanda, balizko euskal lekukotza litzateke, Gorrotxate-giren beraren arabera. Hitz horren esanahiak gure aztarnategi maitearen gertakarien buru izaten ez jarraitzea espero dugu ●

\*geografia-historian lizentziatua, 'arabako euskal hotsak-antecedentes del euskera en alava' liburuaren egilekidea

“

nire iritzi, interes pilo batek bideratu gaitu gauden lekura: aurkikuntzen egiantzik ezari buruz teknikari batzuek ateratako ondorioek batez ere, baina baita jada sendotuta dauden teoria filologikoak aldatu beharra saihesteak ere, beste profesional batzuen kritiken izuak, aztarnategi eder horren kontrola bereganatzeko ehuko arkeologo batzuek duten interesak, akademikoak soilik izan behar duten gaien inguruan sortu ahal izan diren presio politikoak, iruzur posible baten aurrean zorrotz jokatu ez izanak haiengan izan ditzaketen ondorioen aurrean Aldundiko arduradunek izan duten bertigoak; eta hori guztia, hauteskundeak gertu direla alde batera utzita

# KOENRAAD VAN DEN DRIESSCHERen BLOGA

## Zientziaren metodoak - Iruña Veleia

<http://foroterraantiquae.ning.com/>







# Iruña-Veleiako simaurra eta diamanteak

Litekeena ote da arkeologoen taldea amarru baten edo, besterik gabe, broma gaizto eta arduragabe baten biktima izatea? Eta finean: nor da honen guzti honen onuraduna?

davide di paola\*

**N**ola liluratzten gaituen Veleiaren inguruan sortu den albiste hedapen izugarriak. Gure hiri galdua, gure hiri ahaztua. Ez da inoiz hiri honetaz horrenbeste hitz egin, ez du inoiz horrenbesteko interesik sortu, eta ez da inoiz kameraren horrelako mugimendurik izan, Eliseo Gilek, deserosoa eta politikoki zuzena ez den gizon horrek, egin dituen adierazpenak grabatzeko agertu diren arte.

Ezer gutxi esan dezaket pertsonaia isil eta jakintsu honi buruz, inguruko jendearekin, elkarteekin eta kontzejuekin beti agertu izan duen aparteko eskuzabaltasuna eta guztiekin eskaini dien laguntza berrestez gain.

Ez naiz bere errugabetasuna aldarrikatzen ausartuko, dagoeneko epaitu eta kondenatu dutenen aurrean; gertatzen dena gertatuta ere, duela hamarkada bat baino lehenagotik, inolako protagonismorik eta harrokeriarik gabe, guztiok liluratu beharko gintuzkeen proiektua aurrera atera duen gizon honen gizatasuna babestuko dut. Baliabiderik gabe atera du aurrera, oso laguntza gutxiarekin, ahal zuen moduan bizimodu atereaz.

Eliseoren eta honen taldeko jendearen lanari esker, jende ugari ezagutu ahal izan du Jainkoak eta politikariek ahaztuta zuten bitxi hau, azken horiek ez baitzioten epe laburrera nahiko errentagarritasun ikusten. Horien lanari esker, denboran zehar bidaiatu dugu, didaktika eta jolasa nahasten jakin duten arkeologo-legionarioekin, eta historia eta arkeologia Ludi Veleienses deituriko jardunaldietan izan diren milaka bisitariengana gerturatu dituzte.

Gero azaldu ziren oholtza madarikatuak; hala ere, inoiz ez diot Eliseo Gili horiei buruzko adierazpen arriskutsurik entzun; zuhur aritzeko beharra azaldu zuen, eta adituen irizpidea jasotzera zuzendu gintuen beti. Bestalde, eta neuk bizi izan dudalako diot, aurkikuntza jakinarazi zenean, hala moduzko politikariak eta maiketari aditu direnak azaldu ziren hutsetik, ospearen zati bat aldarrikatzera.

Gogoan dut 2006an, Veleiarekiko bat-bateko interesa agertuz, Arabako Aldundiak, proiektua sustatuko zuen fundazio bat sortzeko asmoz, hainbat erakundetako kideak, lehendakari naizen Batzarra barne, teknikari espezialistak eta enpresak bildu zituen una.

Badakizue hasiera batean bilera horretara gonbidatua izan ez zen bakarra zein izan zen? Esango dizuet... Eliseo Gil jauna izan zen, indusketen zuzendaria. Gure txundimena azaldu genuen gerora zuzendu zen «ahazte» horren aurrean. Guztiek izugarriko gogoberotasuna eta beren borondate ona azaldu zuten bilera bakar horretan zegoen tentsioa labanaz ebaki zitekeen, eta kulturaren zerbitzura zeuden Indiana Jones haien ideia idiliko hark egiaztan horren guztiaren atzean dagoena agerian utzi zuen: negozio on bat!

Horren ondoren, isiltasuna. Gogoberotasuna zuhurtasun bilakatu zen, konpromisoaren tokia «ikusiko da» esapideak hartu zuen, eta bi urtez zain egon eta «isilpeko azterketak» egin ondoren, bilaukeria lau haizetara oihukatzea erabaki zen; eta erantzuteko behar adina aukera ez duen gizon bati eta proiektu bati izena kentzea.

Adituak ez garenok ez dugu iritzirik eman ohi; gertaerak eta adituen irizpideak sinesgogortasunez bizi ditugunok, galdera gutxi eta xume batzuk besterik ez ditugu egiten:

Sinesgarria al da esperientzia egiaztatua eta ezaguna duen gizon batek eta aditu talde oso batek horren faltsutze traketsa eta hautemangarria egitea erabaki izana, beren etorkizun pertsonala eta profesionala arriskuan jarritz?

Zergatik sortu da gizartean, politikan eta hedabideetan horrelako zalaparta aurkikuntza horren eta izan duen emaitzaren inguruan?

Litekeena ote da arkeologoen taldea amarru baten edo, besterik gabe, broma gaizto eta arduragabe baten biktima izatea? Eta finean: nor da honen guzti honen onuraduna?

Galdera horiei onargarriak diren erantzunak aurkitzen ez zaizkien bitartean, ezin izango diot Eliseori aurpegira begiratu, eta honako hau esan: «Lagun, oker zaude». Oraingoz, Eliseo eta honen taldeko jendea babesteko gizatasunezko betebeharrak morala dut. Eta inolako koplari gabe gizon-emakume horien izena simaurretara bota duten aditu horiei, diamantea bezain gogor eta distiratsu diren horiei, ezer gutxi esan diezaiek: guztiek dakite diamanteetatik ez dela ezer jaiotzen... eta simaurretik loreak jaiotzen direla ●

\*trespondeko administrazio batzarreko presidentea

## IRUÑA-VELEIA

- dena konpon dadila espero dut, baina hori bai, jarduteko erak bestelakoak izanik, erru guztia gutxi batzuei bota gabe
- hasieratik usain txarra hartu nion kontuari
- herritar gehienok ez dakigu ezta egiaren erdia ere

**t./a.** ane pedruzo

Iruña-Veleiak zeresan anitz eragin du azken aldian. Herria banatuta dago, izan ere, alde batean aurkikuntzen egiazkotasunean sinesten dutenak daude eta bestaldean, dena iruzur bat izatearen aldeko apustua egin dutenak. Epai judizialaren zain gauden honetan, epai morala publikoa da dagoeneko eta Iruña-Veleiako arkeologoaren irudia eta zilegitasuna da jokoan dagoena. Auzia kalera heldu da eta herritarren artean ez da adostasun islarik sumatzen...

### Zer deritzozu Iruña-Veleiarekin gertatzen ari denari?



**Bittor Puente, 49 urte, psikiatra**

Erabakiak arinegi hartu direla deritzot, izan ere, hainbeste urtetako lan bat egunetik egunera gutxietsi eta bertan behera utzi izana ez zait normala iruditzen. Ez dut uste Iruña-Veleian iradokitzen duten bezain profesional txarrak aritzen zirenik lanean. Horrez gain, ustiapenaren arduradunak (Foru Aldundia, erakunde ekonomikoak...) ez dira tontoak, beraz, deritzoten "iruzurra" hainbeste urtetan antzeman ez izana ez dut erreala ikusten. Dena konpon dadila espero dut, baina hori bai, jarduteko erak bestelakoak izanik, erru guztia gutxi batzuei bota gabe.



**Joseba Gorosarri, 33 urte, telefono teknikaria**

Nire ustez dena iruzur bat izan da. Hasieratik usain txarra hartu nion kontuari, horrelako aurkikuntza garrantzitsua bat-batean agertu izana arraroa egin baitzitzaidan..., ez dakit! Gorbeian margo batzuk aurkitu zituztenean gertatutakoak gogorarazten dizkit auzi honek. Ikerkuntza batzordea bide zuzenetik doala uste dut. Dena den, oker egotea espero dut!



**Luis Mari Lopez de Arriabe, 58 urte, erretiratu**

Nire ustez momentuz ez gaude epaitzeko moduan, gauza ugari baitago oraindik argitzear. Gainera, hitz egin ahal izateko behar bezala informaturik egon beharko ginatke eta herritar gehienok ez dakigu ezta egiaren erdia ere. Auzi honetan bi alde daude, eta iritziak % 50eko erlazioan daude bereziak. Azalpenen zai egotea baino ez zaigu gelditzen, eta gero gerokoak!

## zutabea

## 1996ko hitzez oroit

**t.** erlantz urtasun antzano.  
historialaria



"Nortasunaren ezaugarriak berreskuratzea fenomeno aski urtetsua bada ere, indartsu agertu da berriro azken urteotan. Burubide hori -maneuu politikoak galarazten ez badu- positiboa da berez. Kontuan hartu beharra dago maila akademiko ofizialetan bertako historiak estimu handirik pizten ez zuen egoera batetik abiatu garelara; eta Historiak, letra handiz, bere aldetik ikuspegi aski homogeenorakusten zuen [...]"

Zenbait gorabehera direla eta, gure herriak lehen buruan denboran ahalik eta garai urrunetan bilatu ditu bere erroak [...] Guztiarekin ere, historia aro batzuek harrera ahulagoa izan dute historialarien artean, hala nola gure historiaurrearen azken aldiei buruzko ikerketa -azken hamarraldietan bultzada handi bat izan badu ere-, bai eta are deigarriagoa dena: Lurralde hauetako erromatartze prozesuaren azterketari dagokiona. Berezi erromatar aldiari gagozkiola, horretan bertakoen burubide batek, kontzepzio anbiguo batek eragina izan du: gure jatorrizko gizarteak ukitu zituen prozesu hura eta gure egunotatik hain urrun ez dagoen egoera politiko bat parekatzen zituena, alegia.

Aurreritzi horiek, gure ustetan, gehienbat gaiturik daude dagoeneko, nahiz eta aldi horren ikerketaren atzerapenaren ondorioak nozitzen ari garen oraino, alde hori -bestalde- hain funtsezkoa delarik gure izaera egoki ulertu ahal izateko. Horrenbestez, ohiko lan historikoetan -kasurik onenean- garai haietako Euskal Herriari buruzko daturik eza egiaztatzen dugu, edota informazio zaharkituen erabilera. Are kezkarriagoa dugu foro espezializatuetan aurkitzen diren gabeziak [...]"

Bene-benetan, Euskal Herriaren historiako hain garrantzitsua den aldi honen ezagupenaren normalizazioari laguntza ekartzea espero dugu, bertako gizartearen eta mundu klasikoaren arteko elkarrengana gertatu zeneko aldiari dagokionez hain zuzen [...]"

Eliseo Gil Zubillagaren hitzak dira. Aspaldikoak, bai, baina bertan nintzen, eta beti erran didate memoria ona dudala. Eliseoz irudi ona gorde nuen. Eta betikoek nahita sortu egin duten matraka mediatikoak ez dit iritzia aldarazi ●

# arababixotzian



**m. josean morlesin**

"Betidanik marraztea gustukoa izan dut eta batzuen ustez nahiko trebea naiz. Arrazoa izatea espero dut, irudi on batek gutxienez mila hitzen balioa duela uste dudalako."



## musika

### MUSIKA, ZERGATIK EZ?

**t. uhina**

Proposatu zidatenean zutabe honetan musikari buruz idaztea ez nekien oso ondo nola hasi, baina gauza guztiak bezala bidea ibiliz eta eginez eraikitzen da. Horregatik ez dut inolako helbururik, ezta gidoirik ere, bakarrik musikaren erritmoak markatu eta iradokitzen didana.

Zer dauka musikak geure bihotzak ukitzeko eta honen inguruan idazteko edo hitz egiteko gogoia izan deza-gun? Geure gorputzak mugiarazteko eta geure emozioak azalarazteko? Guztiok badakigu zeintzuk diren musikaren bitartez sentitzen ditugun zirrarak, onak eta txarrak, beti hunkitzen gaituztenak. Era berean, musikaren onura fisiko eta psikologikoak ere oso ezagunak dira eta horra hor musikaren bitartez egiten diren terapiak, edo musikari buruz egin diren hainbat eta hainbat ikerketa.

Musika kultura guztietan dago eta beti kulturaren isla izaten da, non herriaren edo gizartearen izaera azaltzen den. Herri bakoitzak baditu bere tresnak, bere soinuak, bere kantuak, eta haien bitartez hobeto ezagutuko ditugu, eta hobeto "usainduko" dugu herri bakoitzaren xarma.

Euskal Herrian, adibidez, Mikel Laboa dugu geure gizartearen eta garai oso inportantearen ikur, baina zoritxarrez gogo eta gorputzaren zilbor hesteak betiko eten du. Musikari eta artista garrantzitsu, esanguratsu eta esku handikoenetako bat izan da, eta dudarik gabe iraultzaileena. Utzi gaitu baina argi dago bere kantak, uneak eta bizipenak hor egongo direla betiko.

Inoiz ez dugu ahaztuko geure kulturen eta geurengan utzitako aztarna, eta euskal musika garaikidearen aitzindaria izan dela. Horregatik nire lehengo ekarpena bere oroimenean idatzi behar nuen ●

**Agur bihotzez, Mikel!**





★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**  
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

# Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



**PARRAL**  
TABERNA  
Egurditan, astelenehietan ostrialeran  
**JANTOKI**  
**BEGETARIANOA**  
SAN FRANTZESKO XABIERKOAREN KANTOLA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL. 945 27 68 33

## ZURE HARATEGIAK



### AIZPEOLEA

harategia  
arraindegia  
frutategia  
okindegia

Jose Luis  
**GARMENDIA**  
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42  
GASTEIZ

*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*

Obren egite  
eta zuzentzea  
**ALTUNA** Estudioa  
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa  
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

**25 ARTEPAN**  
1983-2008 Victoria - Gasteiz  
Jesus Guridi, 2  
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37  
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.  
945 068 888  
01005 GASTEIZ

**UZTINTZA**  
KERAMIKA TAILERRA  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**Udaberria**  
euskaltegia  
· Euskaltegi Homologatua · Musika eskola  
· Helduentzat · Dantza  
· Ume eta gaztekoentzat  
Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65  
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

Euskadik  
behar zaitu



**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA  
Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390  
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar · restaurante ·  
**albéniz**  
Errege atea, 9 - GASTEIZ  
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK  
MOLDURAK LAMINAK  
**zurbeltz**  
Madalena kalea, 2  
TI: 945 13 27 20

Confeciones  
**Pinedo**  
Jantziak  
San Antonio, 11 · TI. 945 23 39 90  
H. Fournier, 15 · TI. 945 15 53 39

**HEGOALDE**  
euskaltegia  
  
Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

ez adiorik, mikel laboa

m. iñigo sarasola





# ONENAK INPLANTOLOGIAN

HOBETU ZURE BIZITZA KALITATEA

ETA BERRIZ ERE IRRI ETA JAN EGIN BETI BEZALA

- **Inplantologian profesional adituak eta formakuntza jarraituan**
- **Azken teknologia eta teknika aurreratuenak**
- **Material onenak, titanio kasu**
- **Funtzionaltasun biribila, erresistentzia hobezina eta estetika bikaina**
- **Liderra Inplantologian 15 urte baino gehiagoko esperientziaz**

VITORIA-GASTEIZ  
GORBEIA KALEA, 13  
945218260



CLINICAS  
**VITAL DENT**  
ONENAK ODONTOLOGIAN

ASTELEHENETIK LARUNBATERA IREKITA 12 ORDUZ EGUNEAN  
12 HILE INTERESIK GABE ETA 5 URTE ARTEKO FINANTZAKETA



*Bravo equipo albizul que resurges potente  
otra vez recordando la gloria de aquel gran  
Deportivo Alavés...*

*Animo pues, valiente Deportivo,  
Animo pues, con entusiasmo  
hay que luchar  
para lograr de nuevo aquellos  
triumfos  
que dieron gloria al equipo y  
la ciudad.*

**2008/2009  
abonu kanpaina**  
*bigarren txanda*

# Benetako emozioak

## *Mendizorrotzan* bizi egiten dira

	abonatuak	babesleak
<b>ERDIKO TRIBUNA NAGUSIA</b>		
HELDUA	255 €	305 €
UMEAK	30 €	40 €
<b>ALBOKO TRIBUNA NAGUSIA</b>		
HELDUA	230 €	280 €
65etik GORAKOA	190 €	230 €
SUB 25	190 €	230 €
SUB 20	180 €	210 €
UMEAK	30 €	40 €
<b>LEHENTASUNEZKO TRIBUNA</b>		
HELDUA	220 €	260 €
65etik GORAKOA	175 €	205 €
SUB 25	140 €	170 €
SUB 20	130 €	150 €
UMEAK	30 €	40 €

	abonatuak	babesleak
<b>POLIKIROLDEGIA ETA CERVANTES (GOIAN)</b>		
HELDUA	150 €	180 €
65etik GORAKOA	110 €	130 €
SUB 25	100 €	120 €
SUB 20	80 €	100 €
UMEAK	30 €	40 €
<b>POLIKIROLDEGIA ETA CERVANTES (BEHEAN-LAGUNARTEAK)</b>		
HELDUA	130 €	160 €
65etik GORAKOA	110 €	130 €
SUB 25	100 €	120 €
SUB 20	80 €	100 €
UMEAK	30 €	40 €

